



Pedro ESARTE

→ 33

Liburu berria
kaleratu du elizondarrak

2017ko ekainaren 1a | XXXVII. urtea | 687. zenbakia

Herrietako bestak

Almandoz

→ 36

DONEZTEBE → 19

Erreka Elkartearen Eguna
ekainaren 2an eta 3an

ITUREN → 20

Trinitate Eguna ospatuko
dute ekainaren 11n

BAZTAN → 32

Baztango kontuak iker-
tzeko laguntza berriak

SENPERE → 39

40 urte bete ditu
INRA institutu publikoak

HERRI-GALDEKETAK | Ekainaren 18an



ERREPORTAJEA → 3-5

Eskubidea aldarrikatzetik gauzatzera

Arano, Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi, Leitza eta Lesakako 10.630 herritarrek izanen dute ekainaren 18ko herri-galdeketa parte hartzeko aukera. *Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?* galderari erantzunen

diote Bortzirietan. Mendialdean, berriz, bi izanen dira galderak: *Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?*. Eta baiezkoa bada, *nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?*.

Materia organikoa zuzen bereizteko kanpaina abiatu dute

→ 27



Leitzako Aurrera taldea ligako txapeldun

Areto-futboleko ligan lehenengo aldiz parte hartu dute leitzarrek, baina hala ere, Gipuzkoako hirugarren mailako txapeldun izan dira. → 43

ETXALAR → 13

XXV. Gasna eta Artisau Feria ekainaren 4an

Egun osoko besta prest du Altxata Kultur Elkartek. Eta bezperan, I. Ardi Zakur Lehiaketa eginen dute.

ZOZKETAK → 51



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo idatzi
info@ttipi.eusera.

berako agenda

.eus

f t

* Ekaina *

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoz edo www.berakoagenda.eus

1-2

ORTZEGUNA
ORTZIRALEA

ERAKUSKETA
ARGAZKI RALLYA

17:00-19:00 Kultur Etxean

Antolatzailea: Ricardo Baroja eskolain Guraso Elkarte

02

ORTZIRALEA

SARI BANAKETA
BAZTAN-BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETA

18:00 Kultur Etxean

Antolatzaileak: Bortzirietako Bertso Eskola eta Berako Kultur Batzordea
Laguntzailea: Bortzirietako Baskara Mankomunitatea

03

LARUNBATA

DANTZA
BERAKO XXIII.
DANTZARI TTIKI EGUNA

Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte

08

ORTZEGUNA

LIBURU AURKEZPENA
"MUERTES
OSCURAS"

Contrabandistas, redes de evasión y asesinatos políticos en el país del Bidasoa 1936

FERNANDO MIKELARENA

19:00 Beralandetan | Gaztelaniaz

08

ORTZEGUNA

KIROLA
IGERILEKUEN
IREKIERA

(ekainaren 8tik irailaren 3ra arte; 11:00-20:00)

Abonamenduak ekainaren 1etik 7ra egiten ahal dira kiroldegian. Ekainaren 8tik aitzinera igerilekuan bertan.

Ikastaroetako izen-ematea: ekainaren 5etik 19ra kiroldegian

- Igerilekuan: igeriketeta
- Kiroldegian: ziklo indoor, pilates, entrenamendu suspentsioan, trx, ziklo gaztea, box entrenamendua

Beti bezala, kiroldegiko muskulazio gelara abonatzen ahal zara.

Eskatu zure entrenamendua!

10

LARUNBATA

MERKATUA
BAZTAN-BIDASOKO
EKOIZLEAK

10:00-13:30
Ricardo Baroja Eskolan

10-11

LARUNBATA
IGANDEA

ALTZATEKO
BESTAK

16

ORTZIRALEA

SOLASALDIA
SIRIAKO
ERREFUXIATUAK

Isabel Erquiaga eta Joxean Ortega. Greziako kanpaldietan egonak dira bi hizlariak eta euren testigantzak adituko ditugu.

18:00 Beralandetan

24

LARUNBATA

KULTUR JAIALDIA
KHERAU
MUSIKA TALDEA

20:30 Altzateko Plazan

Argibete gehiago: www.kherau.com
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

Gestel

INTERNETEKO KONEXIO AZKARRA NAFARROAN
Zauden tokian zaudela nabigatu zuntzaren abiaduran

**BAZTAN
BORTZIRIAK
MALERREKA
URDAZUBI eta ZUGARRAMURDI**



Bertze konpainiak ailegatu ez diren tokietan ere bai!
Iruñerrian, Erriberan, Lizarraldean...
bertze tokietarako kontsulta egin ezazu.

INFORMAZIOA eta KONTRATAZIOA: BERA INFORMATICA SL.

Zalain Industrialdea, 4. 5. lokala. 31780 BERA | T. 948 630 132 | info@berainformatica.com | www.gestelcom.es



Goizeko 9etan irekiko dituzte hauteslekuak ekainaren 18an, baina aurrez botoa emateko aukera ere izanen da.

GIZARTEA → HERRI-GALDEKETAK

Norberaren hitza adierazteko aukera

Eskualdeko 10.630 herritar deitu dituzte ekainaren 18ko galdeketetan parte hartzera

Erabakitzeo eskubidea aldarrikatuzetik, gauzatzera. Gure Esku Dago esatetik, hitza hartzera. Pauso hori emateko aukera izanen dute ekainaren 18an Arano, Areso, Arantza, Bera, Etxalar, Goizueta,

Igantzi, Leitza eta Lesakako herritarrek. Herritarrak izan dira dinamikaren ardatza eta igandean ere beraiek izanen dira protagonista: erabaki eginen dutelako, hala nahi izan dutelako.

G. PIKABEA eta E. IRAOLA
Hitzetatik ekintzeta jo eta herri-galdeketa antolatu eta gauzatzeko sortu ziren Bortzirietako Eman Bortzoko eta Mendialdeko Gure Esku Dago Elkar-teak. Duela sei hilabete inguru egin zituzten elkarteen jendaurreko

aurkezpenak eta eskuz esku, ilusioa ardatz hartuta, bete dute erronka: Ekainaren 18an eginen dira eta herri-galdeketa. Orain arteko bidean, elkarlana izan da gakoa eta baita herritarrek galdeketa erakutsi dioten babesa ere. Galdeketa

egin ahal izateko beharrezko sinadura kopurua jaso ondotik, galdera adostea izan zen hurrengo pausoa, prozesu parte-hartzaile eta irekia martxan jarri. Galdera ahalik eta modu zabalenean adosteko, herriz herri, lagunartean, familian, lankidee-

«Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?»

BORTZIRIETAKO GALDERA

«Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?»

Baiezkoa bada, nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?

MENDIALDEKO GALDERAK

kin, inguruko jendearekin modu ezberdinetan biltzeko aukera izan dute, denen iritzia eta proposamenak jasoz.

ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK

Hala, erantzun beharreko galderak desberdinak dira Bortzirietan eta Mendialdean. *Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?* galderari erantzunen diote Bortzirietan. Mendialdean, berriz, bi izanen dira galderak: *Nahi al duzu Nafarroako herri-*

HAUTESLE ERROLDA	
HERRIA	KOP.
Arano	96
Arantza	538
Areso	249
Bera	3.109
Etxalar	660
Goizueta	638
Igantzi	510
Leitza	2.525
Lesaka	2.305
GUZTIRA	10.630

DATUA

16

URTETIK

gorako herritar guztiak izanen dute aukera galderari BAI edo EZ erantzun edo boto zuria emateko.

Boto-paperetan X baten bidez adieraziko da.

tarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea? eta baiezkoa bada, nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?

16 URTE ETA ERROLDATUTA

Herri galdeketaren antolatzaileek galdeketak berme guztiak izatea nahi dute eta horregatik zorrotz eginen dute prozesu guztiaren jarraipena. Ez dira ohiko hauteskundeak izanen baina bozketaren prozedura antzeko izanen da, aldaketa tiki batzuekin. 16 urtetik gorako herritar guztiak izanen dute galderari BAI edo EZ erantzun edo boto zuria emateko aukera. Herritarrek erroldatuta dauden herrian eman beharko dute botoa. Udalerri bakoitzak mahai bana izanen du eta Alkaiagan eta Suro auzoan ere jarriko dute bana (hurrengo orrialdean bildu ditugu bozka-leku eta ordutegiak).

BEHARREZKO AGIRIAK

Botoa emateko orduan ezinbestekoa izanen da norbere burua identifikatu eta herri horretan bizi dela egiaztatzea. NAN agiria edo pasaporte erabili ahal izanen dira eta horren ordez gida-baimena edo EHNA aurkezten duteneko udaletzeko errolda

agiria ere aurkeztu beharko dute.

X BATEN BIDEZ ADIERAZI

Botoa emateko orduan etxez etxe banatutako gutunazal eta botoak erabiltzeko aukera izanen da. Bestela, bozkaleku bakoitzean ere izanen da paperak hartzeko aukera. Hori bai, boto-papera etxetik eraman da edo bozkalekuan hartuta, BAI edo EZ erantzun nahi dutenek X bat idatzi beharko dute aukeraren laukitxoan X bat BAI erantzunari, edo X bat EZ erantzunari.

ALDEZ AURRETIKO BOZKA

Ekainaren 18an, egun osoz, 09:00etatik 20:00etara izanen da bozkatzeko aukera. Igandea seinatu dute egutegietan Gure Esku Dago dinamikako kideek baina alde aurretik ere, izanen da bozka emateko aukera. Herri bakoitzak zehaztu du non eta noiz izanen den aurrez bozkatzeko aukera. (Hurrengo orrialdean xehetasunak).

BERME GUZTIEKIN

Antolatzaileek ez dute errolda ofizialik, baina sistema informatiko bat erabili dute pertsona batek bi aldiz bozkatzen ez duela bermatzeko. Horrekin batera, herri-galdeketa jarraitu beharreko prozedura aztertu eta galdeketa egunean zuzen betetzen dela egiaztatzeko, kontrol batzordea, jarraipen batzordea eta begirale taldea ere ariko dira lanean.

EMAITZAK BIHARAMUNEAN

Herriz herriko emaitzen berri *erran.eus* atarian izanen duzue biharamunean eta baita ekainaren 29ko aldizkarian ere.

Herritarrei galdezka:
«Zergatik parte hartuko duzu herri-galdeketa?»

ARANO

«Erabakitzeak edozeinen eskubidea izan behar duela uste dut eta horregatik nik, Euskal Herriaren etorkizunagatik erabaki egin nahi dut».

Maitane LEGARRETA



BERA

«Herri bat eraikitzeo herritarrei galdetzea beharrezkoa dela uste dudalako parte hartuko dut ekainaren 18ko galdeketa».

Ines MATXIARENA



IGANTZI

«Parte-hartze haundiak jende gehiagoren iritzia bilduko dituelako. Herritarren garaia da zer izan nahi dugun erabakitzen hasteko».

Amaia GOIENETXE



ARANTZA

«Munduari erakusteko gure gauzak guk erabaki nahi ditugula, eta hori gauza naturala eta normala dela ez dela pribilegio bat».


Beñat MITXELENA



ETXALAR

«Orain arte gutti batzuk hartu dituzte erabakiak, aginduz. Jendeak bere ustea agertu, adierazi eta erabakitzea normala iruditzen zait».

Pello APEZETXEA



LEITZA

«Bozkatzea joanen naiz, gure eskuetan dagoelako orain erabakia, betidanik nahi izan dugun bezala eta ezin dugulako aukera hau galdu».


Joanes ILLARREGI



ARESO

«Baiezkoa edo ezezkoa esateko, baina zergatik ez parte hartu? Erantzun guztiak dira beharrezkoak eta orain gure esku dago erantzuna ematea».


Txomin BELAUNTZARAN



GOIZUETA

«Herri baten etorkizunari buruz erabakitzea eskubide bat delako. Horregatik naturaltasun osoz eta inork kalerik egin gabe, bozkatzea joanen naiz».

Juan Antonio LEKUONA



LESAKA

«Galdeketa baliagarria izateko sentsibilitate guztiak pentsamoldeak sartu behar dira barrenean, bakoitzak pentsatzen duguna adieraziz».

Laura IANTZI

Ekainak 18 HERRIZ HERRIZ

Ekainak 3

LARUNBATA

Areso

11:30-12:00 eta
18:30-20:00

Bozkatzeko aukera
Plazan Zaharrear.

Igantzi

11:00 Toka txapelketa.
12:00 Triki-poteoa.
12:30 Toka txapel-
ketako finalak. 14:00
Herri bazkaria.



Bera

18:00 Mosaiko
erraldoia Kiroldegi
atarian. 19:00 Bertso
poteoa. 21:00
Kontzertua Katakun.

Ekainak 6

ASTEARTEA

Leitza

17:00-18:30 Bozka-
tzeko aukera Aurrera
Elkartean.

Ekainak 9

OSTIRALA

Leitza

10:30-12:30 Bozka-
tzeko aukera Aurrera
Elkartean.

Igantzi

19:00-20:00 Bozka-
tzeko aukera Zentroan.

Ekainak 10

LARUNBATA

Arano

09:30-10:30
Bozkatzeko aukera
Benta Berrin eta
11:30-12:30 Suron.

Goizueta

11:00-13:00 Bozka-
tzeko aukera plazan.

Ekainak 11

IGANDEA

Arantza

Eguerdian bazkaria
Senberroko bordan eta
musika Beñat
Mitxelenarekin.

Goizueta

13:00 Bizikleta poteoa
herrian barna.

Ekainak 12

ASTELEHENA

Lesaka

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
Plaza Zaharrear.

Ekainak 13

ASTEARTEA

Leitza

19:00-20:30 Bozka-
tzeko aukera Aurrera
Elkartean.

Lesaka

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
Plaza Zaharrear.

Bera

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
lamotenean.

Ekainak 14

ASTEAZKENA

Igantzi

19:00-20:30 Bozka-
tzeko aukera Zentroan.

Lesaka

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
Plaza Zaharrear.

Arantza

09:00-11:00 Bozka-
tzeko aukera Goiko
Karrikan. 18:00-20:00
Kooperatiba atarian.

Bera

19:00-21:00 Haute-
tsontzia lamotenean.

Ekainak 15

OSTEGUNA

Goizueta

18:00-20:00 Bozka-
tzeko aukera plazan.

Lesaka

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
Plaza Zaharrear.

Bera

19:00-21:00
Bozkatzeko aukera
lamotenean.

Ekainak 16

OSTIRALA

Lesaka

19:00-21:00
Hautetsontzia Plaza
Zaharrear.

Arantza

19:00-21:00 Haute-
tsontzia Goiko Karrikan.

Bera

19:00-21:00 Haute-
tsontzia lamotenean.

Ekainak 17

LARUNBATA

Lesaka

Arratsaldean Beti Gazte
eta Gure Txokoaren
arteko futbol derbia.

Ekainak 18

IGANDEA

Alkaiaga

09:00-20:00
Hautetsontzia.

Arantza

09:00-20:00 Haute-
tsontzia plazan. 10:00
Kalejira. 12:30
Arantzako Dantza.
16:30 pilota partidak.

17:30 Herri kirolak.
18:30 Haurrak kantari,
Ondotik Luntxa eta
dantzaldia Beñatekin.
21:00 Zozketa.

Arano

09:00-20:00 San Roke
elkartearen aurrean.

Areso

09:00-20:00
Hautetsontzia Plaza
Zaharrear.

Bera

09:00-20:00 Haute-
tsontzia lamotenean.

Etxalar

09:00-20:00
Hautetsontzia plazan.

Goizueta

09:00-20:00
Hautetsontzia plazan.

Igantzi

09:00-20:00 Haute-
tsontzia Zentroan.

Leitza

09:00-20:00 Haute-
tsontzia Herriko Plazan.

Lesaka

09:00-20:00
Hautetsontzia Plaza
Zaharrear.



Nire txanda

Jon ABRIL

Mundu borobila

Futbolak mugitzen du mundua. Ia dena barkatzen da futbolaren izenean. Beldurgarria da futbolaren inguruan dagoen indarkeria. Ageri-agerikoak dira matxismoa, homofobia, arrazakeria, epaileen kontrako irainak, eta oro har, desberdina-rikiko gorrotoa futbolaren testuinguruan. Errazke-ria handiz mugitzen da diru publikoa eliteko futbo-lerako, ia denon oniritziarekin. Ikusi, bertzela, Osa-sunarekin, Realarekin edo Athleticekin nola jokatzen duten administrazioek. Diru-zuriketa, paradisu-fiskaletan dirua gordetzea, sal-erosketa irregula-rrak, ogasunari iruzurra... ohikoak dira eguneroko futboleant. Zergak zintzoki betetzen ditugunok ordaintzen dugu eurek ordaintzen ez dutena!

Ez da dena txarra, jakina. Aitortza merezi dute kirolaren bidez balioak transmititu nahi dituzten klub tiki-ek, musutruk euren orduak ematen dituzten entrenatzaileek, neskei kirolerako atea irekitzen di-tenek... Baina, zoritxarrez, horietako gehienek ere elitea dute begiz joa, eta denek nahi dute Messi, Oier, Illarramendi edo Williams bezalako jokalarie-ri bat ateratzea euren taldetik. Uste baino borobila-agoa da mundua!


Ezpala

Aitor AROTZENA

Beltza zuriaren gainean

Emankor dabilta udaberri honetan gure inguru-ko *letristak*. Aroztegiko afera oinarrian duen eleberria idatzi du Ernesto Prat-ek Baztanen, *Heriotz ilunak* argitarata atera ditu Fernando Mike-lerenak Beran, Patziku Perurenak Goizutako doku-mentu zaharrak azaldu ditu eta Pedro Mari Esartek Nafarroako historian murgiltzen darrai, Hasier Larre-txeak Madrilan idatzitako olerkiak atzendu gabe.

Nabarmentzekoak

Ernesto PRAT URZAINQUI
Hirugarren eleberria argitarata

Telleria eta gero, zer?
Telleria eta gero, zer? bere hirugarren eleberria aurkeztu du. Elkar argitaletxearekin eman du argitarata eta Donostiako aurkezpen ofizialaren ondotik, Lekaroz- en egin zuen *etxeakoa*.

Fernando MIKELARENA
Beratarren azken libururata

Muertes oscuras libu-
Muertes oscuras liburu-
a argitaratu du Berako historialariak, 1936 in-
guruko Bidasoaldeko kon-
trabandista, ihes sare eta hilketa poli-
tikoen inguruko ikerke-
ta lanen emaitza.

Julian RETEGI
Karlos III.aren domina

Nafarroako Gobernuak
Nafarroako Karlos III.
Prestuaren Gurutzea emanen dio eratsunda-
rrari hilaren 17an, «esku
pilota Nafarroan eta Na-
farroatik kanpo sustatu
eta zabaldu duelako».



Atzera begira → 1997-VI-5 • TTIPI-TTAPA 207 zk.

Etxeberria eta Bakerori omenaldia duela hogeitau urte Goizuetan

Gaur egungo futbolaren jarraitzaile gazteei behar bada ez diete gauza handirik erranen Jose Manuel Etxeberria eta Joxe Mari Bakeroren izenek, baina Goizuetan eman dituen futbolari handienak izateaz gain, historia ere egin dute. Etxeberria Osasuna futbol taldean aritu zen eta talde gorritxoarekin partida gehien jokatutako jokalaria izan zen, Patxi Puñalek marka gainditu zuen arte. Oraindik orain Osasunako golegile nagusia da. Bakero, berriz, Errealarekin hasi zen eta FC Barcelonan eman zituen urterik onenak, Europako txapeldun ere izan zen 1991n. Sorterrian omenaldia eskaini zioten duela 20 urte.

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-
diain, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

2016KO ERRENTA ETA ONDAREAREN AITORPENA



BULEGO BERRIA DONEZTEBEN

Malerreka, Baztan eta Bortzirietako herritarren arretarako

Merkatarien Karrika, 6 - Doneztebe.
Astelehenetik ostiralera,
8:30etatik 14:30era.

**AZKEN EGUNA
ekainak 23**



Komikia



Irakurleak mintzo

Nolako bestak eta plazak nahi ditugu? Erabaki dezagun behingoz!

Maitane MARITORENA
AZKARATE (Plazara
Dantzara herri ekimenaren
izenean)

Hasi dira gure herrietako bestak eta berri ere herri guzia elkartuko da plazetan, karriketan, ostatuetan, dantzaldietan... bestan azken finean. Urtea hausten duten bestek elkartzen gaituzte herrian, elkarrekin gozatzeko. Zer da ba besta, hori baino? Nola daite-

ke besta, denendako ez bada? Herritar guzientzako ez bada?

Dantzak ditugu gure kulturaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa eta ongi pasatzeko ezinbertzeko. Jendartearen ispilu eta bozgorailu izaten da, eta Euskal Herriko txoko guzietan bezala, baztandarrek ere horrela erakusten dugu gure burua Baztanen eta munduan. Baztan dantzaria da.

Ez gara aspertuko tradizioak maite ditugula errateaz, tradizio eta ohiturak mantendu nahi ditugula, eta ez gara aspertuko errateaz etengabeko aldaketekin maite ditugula gure tradizioak eta gure jen-

dartea. Aldaketek bizi-raupena bermatzearen aldekoak izan behar dute, etorkizuna eduki nahi badute. Tradizioek irautea nahi badugu, aldaketa ezinbertzekoa da. Aldaketa baita aldaezina den gauza bakarra.

Mutildantzen biziraupena nahi dugu, mutil dantzak aldaketa horien lekukoa izan daitezela nahi dugu. Denen artean erabakitzen dugu gure herriko plazetan nolako aldaketak eman nahi ditugun: bazterketaren aitzinean isiltasun konplizea edo salaketa? Plaza parekide eta anitzak bulkatu, edo indarkeria sexistaren oinarri diren zapalketa

baztertzailleekin segitu? Bazterketa edo elkartasuna? Aniztasuna edo elitismoa? Zein da baztandarrek ispilurat begiratzen dugularik ikusi nahi dugun irudia?

Plazara Dantzarari argi dugu galdera hauek erantzun bakarra dutela, eta urtero bezala plazak eta bestak parekideak, anitzak, beteak eta alaiak nahi ditugula, nork ez? Herritarren hanka tarterat begiratu gabe, aske dantzatzeko oztoporik ez duten plazak eta bestak nahi ditugu. Dantzan gozatzeko plazak, epaiketa publikorik gabeko plazak, denendako plazak.

Dantzatzeko tenorea da, erabakitze teno-


rea da eta ispiluan begiratzeko tenorea da! Goza ditzagun gure herrietako bestak, munduari eta gure buruari besta parekideak maite ditugula erakutsiz.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Auzoa
Bertan jan edo etxera eramateko...

JATETXEA - OSTATUA

Egunero 09:30etik aitzinera irekita

- Pintxoak
- Errazioak
- Plater konbinatuak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
- Oilasko erreak
- Su motelean erretako bildotsa
- Urdaiazpiko Iberikoa labanaz moztua

Ilekueta, 11 | BERA | Enkarguak hartzen ditugu T. 657 472 020



IREKITA

Ekainaren 1etik aitzinera

Prentsatik bildutakoak



«Argi dago horrela grabatuta [analogikoko] askoz azkarrago egiten duzula eta diru pila aurrezten duzula. Ez gara oso perfektzionistak, are gehiago, erabat perfektu dauden ekoizpen horiek normalean ez zaizkigu gehiegi gustatzen. Noski, egongo da bakarren bat, baina akatsak dituzten eta perfektuak ez diren disko zatar asko maite ditugu».

«Ez dut uste enpresan estatusa irabazi dudarik, oraindik ere Aimarrek dauka kategoriari handiena, azken finaletera heldu ez bada ere. Aimar Olaizolak Aimar Olaizola izaten jarraitzen du eta pilotari bezala bere kategoria ez da ezbaian jartzen. Nik uste bera dela oraindik enpresaren erreferentzia eta Urrutikoetxea, dudarik gabe, ere bai».

Iñigo BELZUNEGI
Kaskezur musika taldea
ORTZADAR 2017.05.20

Oinatz BENGOTXEA
Leitzako pilotaria
GARA 2017.05.23

11 galdera labur

Nor dugu Ander Iraola?

19 urteko mutil almandoztarra.

Zein afizio dituzu?

Pilota eta futbola asko gustatzen zaizkit. Lagun artean jokatzen dut astero. Musika ere asko gustatzen zait, gitarra jotzen dut.

Liburuak bazter batean utzi eta gozatzeko tenorea ailegatu da?

Oraindik azterketa batzuk gertatzen zaizkit baina bai, oso gustura hartuko ditut oporrak, ikasturte gogor bat eta gero, lasaitasun pixka bat izan eta udaz gozatzea.

Zer da Almandozko bestetatik gehien gustatzen zaizuna?

Herrian sortzen den giroa asko gustatzen zait. Adin guztietako jendea bilduta: pilota partiduetan, herri-afarian... eta gaueko giroa ere oso polita izaten da, ia denak gazteak izaten gara!

Zerbaiten falta nabari duzu?

Egia errateko ez.

Bestetan, lana edo besta?

Aurtengo bestetan lan gehiago izanen dut besta baino. Hala ere, gozatzen saiatuko naiz!

Herriko txokorik gustukoena?

Frontoia. Beti han

egoten gara bai kuadrillakoak baita beste herritarrak ere. Bestetako ekitaldi hoberenak ere bertan egiten dira.

Zerk egiten du Almandoz berezi?

Herri nahiko lasaia da eta ni behintzat gustura bizi naiz bertan.

Eguna edo gaua nahiago?

Egunez lagunekin oso gustura egoten naiz, baina gaua nahiago dut besta pixka bat egiteko... biak gustuko ditudala erran behar!

Besta egiteko toki bat?

Besta on asko egin ditut baina herriko bestetan ikaragarri disfrutatzen dut.

Amets bat?

Ikastez bukatu eta lana aurkitu. Persona bezala osatua sentitze-ko.



Ander IRAOLA → Almandozko gaztea

MARITX

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikoak
- Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo
31780 bera(navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MARSH ORBEA CONDA SCOTT LOOK

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI

abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

GIZARTEA

GIZARTEA → EKAINAREN 2TIK 4RA IRUNGO ERAKUSTAZOKAN

Bioterra Eko esperientzia asteburu honetarako prestatu dute Ficoban

Laugarren edizioan, ohiko egitarau eta eskaintzaz gain ikusleentzako hainbat berrikuntza izanen dira, baita jarduera paraleloen programa bat ere

TTIPI-TTAPA

Irungo Ficoban izanen da Bioterraren laugarren edizioa, produktu ekologikoen, bioerakuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka. Ficobako hiru pabilioiak beteko dituzte hainbat autonomia erkidegotako eta Iparraldeko 170 erakusketari baino gehiagok.

Bioterraren erakusketak hiru erabilera eremu handitan antolatuta da. Bat produktu eta ekimen ekologikoena da



UTZITAKO ARGAZKIA

Bioterra azokan, sukaldaritzako erakusketak ez ezik, askari eko osasungarriak ere eskainiko dituzte ttikientzat.

eta nekazaritza ekologikoko elikagaiak, kosmetika eta ehunak egoteaz gain, bertan ematen dute kudeaketa ekologikoko ekimenen berri ere, Bioterra Gunea izanen da.

Natural Gunean osasunarekin eta ongizatearekin zerkusia duten sektoreak bilduko dituzte. Ingurunearekiko ikuspegi arduratsua eta

errespetuzkoa dutenak egonen dira bertan.

Eskaintza osatzeko, Geobat gunea ere jarriko dute Ficoban, bioerakuntzaren eta energia berriztagarrien gunea; irtenbide profesionalak izanen dira, erakuntza osasungarria eta ingurumena errespetatzen duena lantzeko; kontsumoa murriztu eta energia naturalak apro-

betzatzen dituzten instalazio energetikoak eta Ekonomia Berdean lan egiten duten profesionalak eta enpresak.

IKUSLEENTZAKO HAINBAT BERRIKUNTZA

Aurtengo proposamenean hitzaldien programa nabarmentzen da, aditu ugari izanen baita hiru egunetan; Bio-beauty Gunea kosme-

tika ekologikoaren txokoa da, hitzaldiak eta erakustaldiak izanen dira bertan; Sukaldean sukaldaritzako erakusketak egingen dira; antzerki eta askari Eko osasungarriak txikientzat; terapien erakusketak; Bioterrako erakusketari beren produktuak eta zerbitzuak aurkezteko gunea; geobiologiako erakusketak edo haurrak sentsibilizatzeko jarduerak. Jarduera horiek guztiak eta gehiago Bioterrako web orrialdean (<http://bioterra.ficoba.org>) daude zehaztuta.

Aurten jarduera paraleloen programa bat ere izanen da: Bioterra Yoga Day. Bioterraz eskainiko den master class bat. Gune gastronomiko hau iaz inauguratu zen kanpoaldean eta aurten handitu egingo da, iaz hagitx harrera ona izan zuelako. Bioterraz bisitariak sukaldaritzako eskaintza zabala izanen dute, Azokara etorriko diren erakusketari esker.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



Nafarroako Gobernuak diru laguntzak emanen ditu LEIHOAK eta KONTRALEIHOAK aldatzeko.







BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU




PVC-zko sistema bakarra* Passive house ziurtagiriarekin BETIKOn daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hobereena.



* 70 mm

A+++

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 9TIK 11RA

Altzateko bestak egitarau dotorearekin datoz aurten ere

Balardi Balardi eta Foisis Jaunak musika taldeak, rallya, futbola...

TTIPI-TTAPA

Altzateko bestak ospatuko dituzte ekainaren 9tik 11rako asteburuan, beti bezala egitarau zabalarekin.

ORTZIRALEA, EKAINAK 9

- 20:00etan txupinazoa Uraldea karrikan eta ondoren karrikabuelta erraldoi, buruhandi eta txistulariekin.
- 22:00etan suzko zezena.
- 22:30ean kontzertua Katakuko terrazan Balardi Balardi taldearekin.

LARUNBATA, EKAINAK 10

- 10:00etan plater tiraketa.
- 11:00 Gure Txokoa eta Beti Gazteko betaroen arteko futbol partida Matzadan, Eman Bortzekoak antolatua.
- 11:30ean karrikabuelta.
- 12:00ean II. Ibardingo Igoera Rallya Ilargi eskuderiak antolatua. Errepidearen itxiera. 14:00etan lasterketa hasiera.
- 14:30ean auzo bazkaria Uraldea karrikan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mugaz Gain antzerki jaialdi arrakastatsua

Antzerkirako dohai ederrak erakutsi dituzte aurten ere herriko ikastetxeetako ikasleek Mugaz Gain antzerki jaialdian. Lehen astean DBHkoak aritu ziren eta Labiaga eta Toki Onako ikasleekin batera, Errenteria-Oiartzun eta Frantziako Lescar-ekoak ere aritu ziren. Bigarren astean, Labiaga ikastolako, Ricardo Baroja eskola publikoko eta Jesusen Bihotza ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleak aritu ziren.

Haurrak 6 euro; helduak 16 euro.

- 18:00etan poteoa batukadarekin.
- 19:00etan Rallyko sari banaketa Xugako atarian.
- 22:00etan Foisis Jaunak taldearen (Itoiz-en bertsioak) kontzertua Katakuko atarian.

IGANDEA, EKAINAK 11

- 11:00etan haur jolasak Azoka plazan.
- 12:30ean euskal dantzak Alzateko plazan.
- 18:00etan funky dan-

tza ikuskizuna. poniarrek. Ondoren, zozketa.

- 20:00etan bonba ja-

HITZARMENA INDIRREAN DAGOELA DIO ENPRESAK

Kanttonberriko beilatokia kudeatzen segituko du Irachek

Irache beilatokiek San Jose Zahar Etxean dauden Kanttonberri beilatokia kudeatzen segituko du. Hitzarmen horren bidez Irachek (Maldaerreka), egoitzan dauden hileta-instalazioak eraiki, mantendu eta beilatokia bera kudeatzeko ardura hartu zuen bere gain. Lehenago ez zen halako instalaziorik herrian eta «horrek esfortzu handia eskatu du inbertsioari eta bertako lan eskaintza handitzeari dagokionez, herritarrei zerbitzua eskaintzeko».

FLASH

Igerilekuen irekiera

Ekainaren 8tik irailaren 3ra arte irekiko dituzte udal igerilekuak, 11:00etatik 20:00etara. Abonamenduak ekainaren 1etik 7ra egiten ahal dira kiroldegian eta ekainaren 8tik aitzinera igerilekuan bertan. Ikastaroetako izen-ematea ekainaren 5etik 19ra egin daiteke kiroldegian. Igerilekuan igeriketa eta kiroldegian ziklo indoor, pilates, entrenamendua suspentsioan -trx-, ziklo gaztea, box entrenamendua...

XXIII. Dantzari Ttiki Eguna

Gure Txokoa antolatutako Dantzari Ttiki Egunaren 23. edizioa egingen dute ekainaren 3an. Larunbat goizeko 10:30etik aitzinera karriketan dantzan ibiliko dira Bera, Lesaka eta inguruko dantzariak. 12:30ean jaialdia Alzateko plazan (euria egingen balu Eztegarra pilotalekuan) eta 16:00etan dantzaldia Alzateko frontoian Oharkabe taldearekin.

Isidoro Fagoaga antzerkia eta kontzertua

Isidororen bidaiak antzerki-kontzertua ekaineko du Isidoro Fagoaga musika eskolak ekainaren 9an, ortzira-lean 22:00etan Herriko Etxeko Plazan. Euria egingen balu, Alzateko plazan.

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Goieko DESIN BERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuza...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu datu! Termita eta Pipien tratamendurik
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

KULTURA → EKAINAREN 3AN, 20:00ETAN

Nazioarteko Dantza Garaikidea Harriondoan

Eduardo Fukushima brasildarrak 'Título em Sumpensao' aurkeztuko du, sortze-prozesua herrian bukatu eta gero

Aitor AROTZENA

Nafarroako Gobernuak antolatutako DNA Dantza Garaikidearen Jaialdiaren baitan Brasilio Eduardo Fukushimaren konpainiak *Título em Suspensão* lana aurkeztuko du ekainaren 3an, larunbatean 20:00etan Harriondoan.

Eduardo Fukushimak Lesakako egonaldibatean parte hartu du maiatzaren 14tik ekai-

naren 1era, *Título em Suspensão*-ren sortze-prozesua bukatuz eta gainera, asteazkenetan doako tailerrak eskaini ditu.

Margoketa azkarra

Elias Garralda Margoketa azkarreko lehiaketa eta Haur Margoketaren Eguna antolatatu ditu Beti Gazteek bosgarren aldiz, Udalaren eta Lesakako Zerbitzuen Elkartearen laguntzaz ekainaren 4rako. Helduei dagokienez, lanak igande goizeko 8:30etik 10etara zigilatuko dituzte eta 13:30 eta 14:00 artean aurkeztu elkarrean.

Epaimahaiaren emaitzak arratsaldeko 6etan ezagutzera emanen dituzte Alondegiko arkupeetan eginen den erakusketan. Lehenbiziko saria 500 eurokoa iza-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Sanferminetako kartela eta programaren azalak aukeratuak

Sanferminak iragarriko dituen kartela eta besten programako azala eta kontrazalean joanen diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, Garazi Conde Oruberen *Hasiera* izan da lehiaketako irabazlea eta portadarako, Juan Carlos Pikabea Zubiri margolariaren *Musika Soinua* lana aukeratu dute. Bakoitzak, 250 euroko bonoa eskuratuko du saritzat, herriko komertzio, zerbitzu edo ostatuetan erabiltzeko. Kontrazal lehiaketa, margolariaren alabak, Mayi Pikabea Perinnek irabazi du, *Bandera dantza* lanarekin. Honek, 100 euroko bonoa izanen du saritzat, herriko dendetan eskolako materiala erosten erabiltzeko, bere lana programaren gibelego azalean argitaratua ikusteaz gain.

FLASH

Artea Oinez ikusteko hondar egunak

Maiatzaren 19an zabaldu zituen ateak Harriondoako komentuan Artea Oinez erakusketak. Ekainaren 4ra arte daude lanak ikusgai.

Balkoi lehiaketa

Lesakako Zerbitzuen Elkartean laugarren urtean antolatatu du Balkoi Loredunen lehiaketa ekainean. Hilaren 23an jakinaraziko dute emaitza. Lehen saria, erosketa bonoetan 200 euro izanen da, bigarrena 150 euro eta hirugarrena 100 euro.

Ezagutu Dezagun Lesaka

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sari banaketa eginen dute ekainaren 2an, ortziralean 19:00etan Beti Gazte elkartearen egoitzan. Biharamunean Beti Gazteren Eguna ospatuko dute: mendi irteera, futbol partida, txaranga, argazki rallyaren sari banaketa, bazkaria...

Bereau Hotela
LESKA

OSTATUA - JATETXEA
Ekainaren 1ean
IREKITZEA
Arratsaldeko 7etan luntxa
Agurra eta ongietorria
ZATOZTE GUREKIN OSPATZERA!

Bertako sukaldean goxotasunez prestatua

Hanburgesak eta lasagnak:

barazki edo haragizkoak

Marisko bolak, krocketak

Ogitarteko bereziak

Etxeko platerak

Etxean egindako izozkiak eta postreak

Fruta likuatua

Ingurugiroa
zainduz
bertako
produktuen
aldeko
erronka

EGUNERO IREKITA

Goizeko 7etatik aitzinera

BEREAU auzoa T. 948 637 570 - LESKA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 3 ETA 4AN

Ardi zakur lehiaketa ere eginen dute Gasna Ferian

Altxata
elkartek 25.
aldiz antolatu
du gasna eta
artisau feria

Irene ELIZAGOIEN

Ekainaren 3an, larunbatean, 16:30etik aitzinera Errota pareko zelaian Etxalarko I. ardi zakur lehiaketa egingen dute eta 19:00etan herriko dantzarien saioa izanen da frontoian.

Iganderako berriz egitarau zabala dago aurreikusita. Goizeko 10:30etatik 14:00etara artisauen erakusketa eta salmenta. 10:00etatik 11:30etara gasna lehiaketako gasnen harrera izanen da. 12:30ean herriko trikitilariak saioa eskainiko dute urtero bezala eta jarraian XXV. Eskualdeko Ardi Gasna lehiaketako sariak banatuko dituzte. Eguna-

ri akabera emateko kantu bazkaria izanen da Bankako kantariak girotuta.

Eskola zaharretan egun osoz Etxalarko eskulan ikastaroko lanak egonen dira ikusgai eta goizean Iriondoan baserriko lan tresna zaharrak ikusteko aukera izanen da.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Landagain eskolako kanpaldiak

Ikasturte bukaerarekin batera Landagain eskolako ikasleak kanpaldiak egiten ari dira. Haur Hezkuntzakoak, apirilaren 27 eta 28an, Pasai Donibaneko Piratzen etxean egon ziren Arantza eta Igantzi ikasleekin batera. Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailakoak, maiatzaren 25 eta 26ean, Beirera joan ziren Igantzi eta Arantzako ikasleekin batera. Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailakoak berriz, maiatzaren 29, 30 eta 31 Orioko aterpetxean pasa zituzten. Eskolako zaharrek maiatzaren 24, 25, eta 26an, Araban dagoen Ullibarri-Ganboa urtegiko Zuhatza uhartera joanen ziren, Arantza, Igantzi eta Lesakakoekin batera.



ARGAZKIA: REBEKA ARANZADI

Irene Pallarés hip-hop irakaslea

Espainiako lehen hip hop eskolaren sortzailea izan zen eta hainbat sari garrantzitsu irabazi dituen Irene Pallarés-ekin *masterclass* bat egin dute herriko ikasleek. Horrez gain Ane, Daniela eta Amaurrek hip hop kurtsoko bigarren azterketa egin dute.



ARGAZKIA: ERESOINKA

Itsaso Elizagoien Eresoinka taldean

Itsaso Elizagoien trikitilari duen Eresoinka taldeak bere lehen kontzertua eskaini zuen maiatzaren 21ean Donostiako Miramongo anfiteatroan, Olatu talka 2017 kultur jaialdian.

Ba al zenekien

Ekainaren 24tik abuztuaren 27ra izanen den udasasoira 2 sorosle eta sarrera eta ostaturduratuko den langilea kontratatuko dituela Udalak. Eskaerak ekainaren 7ko 14:00 arte.



Manterola
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertazak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ARANTZA

GIZARTEA → EKAINAREN 18AN

Herri galdeketa besta giroan

Ekainaren 18an botoa eman ezin dutenek aitzinetik ematen ahal izanen dute

Nerea ALTZURI

Ate joka dugu egun haundia. Hainbertzetan aipatu dugun ekainaren 18ko herri-galdeketa ailegatzeko gutti falta da. 538 aranztarrek izanen dute galdeketa parte hartzeko aukera eta egun haundia ekainaren 18a izanen bada ere, aitzinetik ere botoa ematen ahal izanen da.

Ekainaren 14an, goiz eta arratsaldez botoa emateko aukera izanen

da: 09:00etatik 11:00etara Goiko Karrikan egonen den mahaian eta 18:00etatik 20:00etara kooperatiba atarian. Ekainaren 16an, 19:00etatik 21:00etara Goiko Karrikan paratuko dute hautetsontzia. Ekainaren 18an, berriz, 09:00etatik 20:00etara plazan ematen ahal izanen da botoa. Hala ere, botoa eman nahi eta egun horietan ezin duenak aski dute abisatzea, eta antolatzaileraino joanen dira hautetsontziarekin.

Botoa ematerakoan NAN eguneratua izatea eta hori aurkeztea beharrezkoa izanen dela jakinarazi dute antolatzailerak. Eta bertzelan errola-agiria eraman beharko da.



Ba al zenekien

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu dituela Arantzán? Uztailaren 3tik 28ra eskainiko dituzte eta bi edo lau asterako apuntatzen ahal da. Ekainaren 2a baino lehen eman behar da izena www.bortziriak.eus atarian edo telefonoz (948 634125).



ARGAZKIAK: ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Eskolako lagunak kanpaldietan

Ikasturte akabera hurbiltzen ari den seinale, eskolako neska-mutikoak kanpaldietan ibili dira. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoak, adibidez, Piraten Etxean egondu ziren apirilaren 27an eta 28an (orduak dira argazkiak). Lehenbiziko ziklokoak maiatzaren 25ean eta 26an Beiren izandu ziren, 2. ziklokoak maiatzaren 29tik 31ra Orion, eta 3. ziklokoak Zuhatzan maiatzaren 24tik 26ra. Horrez gain, maiatzaren 26an, Haur Hezkuntzako guztiek, Igantzi eta Etxalarkoekin batera, egunpasa egin zuten Donostiako Txiki parkera.

TERNIDA EGUNA

Ez da oraingo kontua Ternida Egunean Senberroko bordan bazkaria egitea. Bada hori probestuz, Eman Bortzeko Elkartek bazkaria (norberak eraman behar du) eta ondotik Beñat Mitxele narekin dantzaldia antolatu ditu ekainaren 11n.

EGUN OSOKO BESTA

Ekainaren 18a besta eguna izanen da. 09:00etan hautetsontzien irekiera ekitaldia egingen du-

te plazan, aureskua eta guzti. 10:00etan trikitilariak herrian barna ibiliko dira kalejiran eta 12:30 aldera Arantzako Dantza dantzatuko dute herriarrek plazan.

16:30ean herriko gaztetxoek pilota partidak jokatuko dituzte eta 17:30ean gazteek hartuko dute lekukoa, herrikirol desafioa egiteko. 18:30 aldera haurrak kantari ariko dira eta 19:00etan luntxa eskainiko dute antolatzailerak. Ordu-

an hasiko da Beñatekin dantzaldia. 20:00etan hautetsontziak itxia, botoak kontatuko dituzte eta 21:00etan Bortzirietan salgai diren boletoen zozketa egingen dute.

MATERIALA SALGAI

Herri-galdeketa begira, banderatoak eta boletoa ere ateratu dituzte eta salgai daude Dena eta Apezenea janari-dendetan. Bortz eurotan banderatoak eta euro batean boletoa.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
► TDT instalazioak
► TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
► Instalazio individualak eta kolektiboak
► Satelite bidezko interneta
► Internet konexio simetrikoko ultralastera
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimabako@gmail.com

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK
Erakusketa: Bereau Etxean
BORTZIRI
UNSION ANAIK
Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erregegia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 3AN

Herri galdeketa girotzeko ekitaldiak prestatu dituzte larunbaterako

Toka txapelketa eta triki-poteoaren ondotik, herri bazkaria egingen dute eta gero Berako mosaiko erraldoira

di antolatu dituzte ekainaren 3an. Larunbatean 11:00etan Toka txapelketa jokatu da frontoian; 12:00etan Triki-poteoa; 12:30ean Toka txapelketaren finala eta 14:00etan Herri bazkaria Biltokian, honako menu honekin: entsalada, paella, postrea, edaria eta kafea.

Txartelak salgai daude La Villan eta Bibiden, maiatzaren 31 arte. Helduak 15 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 8 euro, opariak barne.

Bazkaldu ondotik, denak elkarrekin Bera-



ARGAZKIA: IRRISARRI LAND

III. Zaldi Azoka egin dute IrriSarri Landen

IrriSarri Landen III. Zaldi Azoka egin dute maiatzeko azken asteburuan. Jarduerak ortziralean hasi ziren, afari solasaldia egin baitzuten Reinaldo Armendarizekin. Eskarmentu handiko zaldizkoa da, bai heziera klasikoan baita jauzien ere, eta jende ospetsuarekin lan egin du; Pablo Hermoso de Mendoza, Roberto Armendariz eta Joaquin Legarrekerekin, erraterako. Larunbat goizean ibilaldi bat egin zuten Bortzirietako mendietan barna. Ondotik, parkean bazkaria egin zuten ibilaldian parte hartu zuten zaldizko guztiek. Arratsaldean, zaldizkoak entrenatzen hasi ziren igandeko zaldi txapelketarako. Bukatzeko, afaria, eta afa-londoan, mariatxi-karaokea izan zuten. Igandean, Zaldi Azokaren ekitaldi nagusia egin zen, IrriSarri Land Zaldi Txapelketa. Hainbat proba, oztopo-ginkana eta palio izan zituzten, zaldizkoek eta zaldiek beren trebeziak erakusteko. Txapelketan lau sari banatu ziren. Lehen hiruak zaldizko eta zaldi onenei eman zitzaizkien eta laugarrena zaldirik ederrenarentzat.

ra joanen dira, mosaiko erraldoian parte hartze-
ra.

Ekainaren 18an, zen-

troan izanen da bozka -
tzeko aukera. Aitzinetik
botoa emateko egunak
eta orduak, berriz, ekai-

naren 9an, ortziralea, eta
ekainaren 14an, asteaz-
kena, 19:00etatik
20:00etara.

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 18an herri galdeketa deitua da Igantzi, Bortzirietako bertze herrietan bezalaxe. Egun hori girotzen hasteko hainbat ekital-

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ERREKALDE

OSATUTAKO

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATUAK

TFNOA: 948 630 259
BERA

NAFAR MENDI
HIPERSIMPLY

merkatalgunea
Arraloz, Baztan | 948.452.656 | 9h00-21h00

**PARTE HARTU HIPER
SIMPLYKO ZOZKETAN
CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN
ETA IRABAZI...**

1 HYUNDAI I10 AUTOA

2

**100 EUROKO 5
EROSKETA TXARTEL
ARROPA DENDAN
ERABILTZEKO**

3

**BERTAKO PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO 3 SAKI**

Club SIMPLY AURREZTU DIRUA ITZULTZEN DIZUN TXARTELAREKIN
Egin zaitez bazkide

BORTZIRIAK

KULTURA → EKAINAREN 8AN BERAN

Liburu berria aurkeztuko du Berako Fernando Mikelarenak


Bidasoaldean 1936an izandako heriotz ilunak ikertu eta paperera ekarri ditu historialariak

1936. Izenburuan ageri den bezala, Espainia-ko Gerraren testuinguruan Bidasoaldean izandako heriotz ilunak ikertu eta paperera akarri ditu, «garai hartako epaiketetan erran ziren gezurren gaintetik lan eginez».

Maiatzaren 22an egin zuen liburuaren aurkezpen ofiziala Iruñeko Auzolan liburudendan, baina Bidasoaldea hizpide izanik, gure inguruan ere aurkeztuko du idazlana. Ekainaren 8an, ortzegunean 19:00etan egingen du aurkezpena Beralandetan, gaztelaniaz.

TTIPI-TTAPA

Fernando Mikelarena historialari beratarak liburu berria idatzi du, Pamiela argitaletxearen eskutik: *Muertes oscuras: Contrabandistas, redes de evasión y asesinatos políticos en el País del Bidasoa*.



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Fernando Mikelarena, bere azken liburuaren aurkeztu zuenean Iruñean maiatzaren 22an.

ALBAITARITZA

Zakurren errabiaren kontrako txerto kanpaina

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 7an eta 8an, asteazken eta ortzegunean, 16:00etatik 19:00etara Berako Elektrobian izanen da albaitaria (Kultur Etxeko aparkalekuan).

Ekainaren 14an, asteazkena, 16:00etatik 19:00etara Etxa-larko Mataderoan izanen da.

Ekainaren 15ean, ortzeguna, 16:00etatik 17:00etara Alkaia-gan eta 17:30etik 18:30era Zalain-Zokon izanen da.

Txertoaren prezioa 21 eurokoa da, identifikazioarena 31 euro, identifikazio eta txertoarena 41 euro eta jabe aldaketarengatik 10 euro ordaindu beharko da.

Ba al zenekien

Baztan-Bidasoko XXX. Bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekainaren 2an, ortziraletan 18:00etan egingen dutela Berako Kultur Etxean

Zatoz gurekin Ingalaterrara!

13 eta 17 urte bitartean dituzu?

Herri britainiar batean esperientzia zoragarri bat izan nahi duzu?

Zure ingelesa hobetu nahi duzu?

Herria: Petersfield (Londresetik 100 km-ra)
Alojamendua: Familia batean. Osoko mantenua. Bakarkako logelan.
Laguntzailea: Lesakatik joan etorrian eta hango egonaldian.

Uda honetarako aukera gehiago, bai Lesakan bertan edota atzerrian. Taldeka edo bakarka adin guztietarako. Galdetu konpromisorik gabe!

2017-2018 ikasturterako matrikula irekia.
 Matrikula dohainik ekainak 15 baino lehenago izena ematen baduzu.

Koskontako bidea, 11 behea - LESAKA Tel. 948 637 135 / 628 195 322 ePosta. recepcion@acomlanguages.com web. www.acornlanguages.com



Kontaktua | 365 egun/
948 05 90 90 | 24 ordu

www.izarratanatorio.com
izarra@izarratanatorio.com

“Zerbitzu pertsonalizatua eta hurbilekoa eskaintzen dugu, hildako bakoitza izar bat eta bakarria baita”

2016 urte hondarrean eman zituen lehenbiziko pausoak IZARRA TANATORIO TALDEAK eta pixkanaka Nafarroa osoan barrena zabalduz doa. Bortzirietako eta inguruko herritarrei ere eskaini nahi dizkiete euren zerbitzuak, Berako beilatokia erabiltzeko baimena du eta etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen hasiak dira inguruan. Mikel Idoate, Izarra Tanatorioetako gerenteak eta Fernando Berasain, hileta-zerbitzuetako ardura-dun beratarak, azaldu dituzte zerbitzuaren nondik norakoak.

Proiektu berria da, baina esperientzia handiko jendea dago gibelean...

Mikel: Pilotan ari nintzenean argi nuen etorkizunean enpresa munduan lan egin nahi nuela. Ekintzailatzat dut nire burua eta gogotsu heldu nion erronka berriari. Mikel Legarrekkin banuen harremana, urtetan Iratxe Tanatorioan lana egindakoa da bera eta nire ilusioa eta bere esperientziak bat eginda, proiektu interesgarria gauzatu genezakela ikusi genuen.

Fernando: Ni Iratxe Tanatorioan ari nintzen lanean Izarra proiektua ezagutu nuenean. Lanerako filosofia eta lantaldea gustuko nituenez, Izarran lanean hastea erabaki nuen, ilusioz beterik.



Eta zein da proiektu hori?

Mikel: Enpresa, hileta-zerbitzuak eta bizitza-heriotza kontzeptua ulertzeko modu berri bat da Izarra. Hurbiltasuna eta berrikuntza dira gure izaeraren adierazle nagusiak eta bertan errotuak ditugu gure izana eta sustraiak. Badakigu orain artean, heriotza eta hileta zerbitzuak gai ilunak izan direla, tabua eta gu hori aldatu nahian gabiltza. Horretarako, hurbileko zerbitzua eskaintzen dugu, pertsonalizatua; gizaki bakoitzak heriotza bizi eta ulertzeko bere modua baitu. Bezeroei gure ezagutza eta baliabide guztiak eskaintzen dizkiegu bide horretan laguntzeko.

Non eskaintzen dituzue zerbitzuak?

Fernando: Iruñean, Txantrean, Etxarri-Aranatzen eta Altsasun ditugu Tanatorioak eta etxe partikularretan, zahar-etxeetan eta ospitaletan ere eskaintzen ditugu zerbitzuak.

Berako San Jose zahar-etxean ere eskaintzen ari gara hileta-zerbitzuak.

Mikel: Bai hala da, Berako zahar-etxeko beilatokia erabiltzeko baimena izanen dugu aurrerantzean. Eta ez hori bakarrik, Bortzirietan ere lanean ari gara. Arantzan, adibidez, apezaren etxeko lokalean eskaini ditzakegu zerbitzuak. Eta etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen da, bai baitakigu Urdazubi eta Zugarramurdi adibidez, aunitzetan beilatokiak etxeetan egiten direla. Azken finean, gure helburua Nafarroako iparralde osoan gure proiektua ezagutaraztea da.

«Gure baliabideak eta ezagutza guztia jartzen dugu bezeroen eskura eta langileak etengabe ari gara trebatzen, gure bezero guztien ongizatea bermatzeko».

ESKAITZEN DITUGUN ZERBITZUAK

Zerbitzu osoa eskaintzen dugu:

- hildakoa prestatu
- dokumentuak tramitatu
- eskelak
- loreak...

Hildakoari azken agurra ahalik eta modurik lasai eta goxoenean ematea nahi dugu.



GIZARTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN

Paris 365
Jantoki soziala

Gizakia helburu
Droga menpekotasuna

Adi txuribeltza
Kultura gutxituak eta
hirugarren mundua

Izarbide
Doluan laguntza

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 14AN

Eskola ttikietako VII. Joku Topaketa herrian egingen dute

Malerrekako irakasle eta ikasleak bilduz

Maider PETRIRENA

Zazpigarren urtea da Sunbillako frontoian Joku topaketa ospatuko dutela. Aurtengoan al daketa tiki bat izan da. Orain arte aste santu inguruan egiten bazuten ere besta hau aurtengoan ekainaren 14an elkartuko dira Malerrekako eskola ttikietako irakasle eta ikasle guztiak. Ginkana eta jaialdia izanen da. Egitaraua datozen egunetan zehaztuko dute.

Ekainaren 20an, berri, aurtengo ikasturteari bukaera polita emanen diote, dantzan eta kantuan.

Igerilekuaren irekiera

Igerilekua, ekainaren 15etik irailaren 15era irekiko dute. Uda osoko bonoa 42 euro gostako da helduentzat, 29,50 euro 12-18urtekoentzat eta 23 euro 6-12koentzat. 6 urtez beheitikoei doan dute, baina beti heldu batekin joan behar dute. Bonoak dagoeneko eskura daitezke udaletxean eta txartel bidez ere ordain zuzen ahal da.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Escolako ikasleak Orkestra Sinfonikoarekin musikari Baluartean

Tikiak jada escolako azken hilabeteaz gozatzen ari dira eta kurtso bukaerako emanaldiak egiten ari dira. Maiatzaren 17an Sunbillako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak Malerrekako eskola ttikietako bertze ikasle eta irakasleekin batera Baluartera joan ziren. Bertan Iruñeako eskolekin elkartu eta Nafarroako orkestra sinfonikoaren kontzertu batean parte hartu zuten. Orkestrak jotzen zuen bitartean aipatutako ikasleak txirularekin eta kantuz lagundu zieten. Hagitz esperientzia polita izan zen.

Ulibeltzak elkartearekin harremana posta elektronikoz ere

Maiatzaren 13an Ulibeltzak Elkarteko batzar orokorra egin zuten. Hainbat gai izan zituzten mintzagai eta horien artean bazkideekin kontaktatzeko modua ere aipatu zen. Harreman hori ahalik eta bizkorrena eta errazena izan da-

Ba al zenekien

Haritz Arriola sunbildarrak irabazi zuela Iñurieta upategiko ardo lote bat Donezteben antolatutako X. pintxo lehiaketan. Bozketan parte hartu zuten bezeroen artean zozketatu zuten saria. Zorionak!

din, informazioa zabalteko bide berria jarriko dute martxan. interesa dutenek beraien datuak bidali behar dituzte elkarteko e-mailera: ulibeltzak@gmail.com,

izen-Abizenak, e-maila eta telefono zenbakia jakinaraziz.

Modu honetan elkarreko informazio guztia e-mail bidez jakinaraziko diote bazkideei.

ABUZTUAN

Doneztebeko Euskaltegiak EGA ikastaroa eskainiko du udan

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko IKA Euskaltegiak EGA ikastaroa eskainiko du udan, abuztuaren 7tik irailaren 1era. Bi aukera egon dira, aurrez aurreko klaseak edo on-line. Informazio gehiago 948451555 edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidean jaso daiteke. Gainera, ikastaro hau egiten dutenek Malerrekako Mankomunitateari diru-laguntza eskatzeko aukera izanen dute. Horretarako derri gorrezkoa izanen da gutxienez 16 urte izatea eta Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egotea. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia %85etik goitiko izatea ezinbestekoa izanen da eta eskatzaileak Malerrekako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak beteta eduki beharko ditu. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira administrazio publikoren batetako langileak izanik, euskalduntze plan bezirekin batean sartuak daudenak. Dokumentazioa irailaren 22a baino lehen aurkeztu beharko da.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ORBELA
SENDERISMOA ALBERGUESNAVARRA

BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 2AN ETA 3AN

Erreka elkartearen Eguna ekitaldiz ongi hornitua dator

Larunbatean eskubaloia eta herri afaria protagonista

Marga ERDOZAIN

Erreka Kirol Elkarteak, denboraldia behar bezala akitzeko bere urteko besta nagusia ospatuko du.

EKAINAK 2, ORTZIRALA

- 18:00 umeak eskubaloian.
- 17:00-20:00 puzgariak Kiroldegian
- 22:00 Santa Luzia Plazan mus txapelketa handia (irabazleentzat 300 euro eta bigarrentzat 100 euro. Izen ematea 10 euro biko-teak).

EKAINAK 3, LARUNBATA

- 10:00 kiroldegian eskubaloia (infantil eta alebin neskak nahasita eta infantil mutilak vs Kadete neskak);
- 12:00 Errekako Judo Eskolako erakustaldia; goizean pilota partidurak frontoian: Josetxo Ezkurra Memoriala;
- 16:30 Jubenilak vs Beteranoak.
- 17:30 Senior neskak eta mutilak nahasiak; partiden atsedenaldietan Errekako Dantza taldearen erakustaldia. Akitzean zozketak.
- 21:00 Herri Afaria Santa Luzia Plazan (txartelak Titi ostatuan erosi behar dira ekainaren 1a baino lehen). Eguna borobiltzeko Oharkabe taldearen emanaldia izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bestetako kartela eta programaren azalak aukeratuak

Iaz bezala, aurtien ere Iraizkozko Leire Echeverria Sampedrok irabazi du ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren bestetako kartel lehiaketa, *Trapata-naren oinordetza* izenburua duen lanarekin eta 150 euroko saria eskuratuko du. Kartel hau erabiliko da bestetako aldizkariaren portada egiteko ere. Elizabeth Lacambra, berriz, San Miguel eskolako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako kartel lehiaketako irabazlea suertatu da eta aldizkariako kontrazala jantziko du.

Agorreta Musika eskolako matrikulazioa

2017-18 ikasturterako ohiko matrikula epea zabaldu du Udalak. Agorretaren eskaintza zabalda da. Alde batetik instrumentuak ikasteko aukera bada: gitarra, gitarra elektrikoa, perkusioa, pianoa, trikitixa, akordeoia eta txistua. Bertze aldetik, haur abesbatzarako ere izena ematen ahal da: musika ikasten ari ez, baina kantatzea gustoko duen haur edo gazteei zuzendutako eskaintza. 12 urte edo gehiago duenak, solfeorik edo hizkuntza musikalik gabe instrumentua jotzen ikasteko aukera ere ba-

du. Eta akitzeko, instrumentu bat jo edo berreskuratu nahi duenak ere aukera badu eskolan izena emateko. Interesatuak arratsaldean eskolara hurbiltzen ahal dira. Argibideak 636 669750 telefonora deituz edo esmusidoneztebe@gmail.com helbidera idatziz. Ohiko matrikulazio epeaz gain, epe berezia irekiko da heldu den irailaren 4tik 8ra.

Mendi Abesbatza Leonen

Maiatzaren lehendabiziko asteburuan Mendi Abesbatzako kideak Leonera joan ziren, bertako Auditorio modernoa ikusgarrian kontzer-

tua eskaintzera. Proiektu hau Joaquín Larreglaren omenezko kontzertuetan ezagututako Raquel del Val piano kontzertista handiaren eskutik etorri da. Raquel del Valek abesbatza zein bere lan egiteko modua zeharo goraiatu zituen orduko saioan, eta harreman haren eskutik sortu zen Leongo emanaldia.

Kontzertuan berriz ere Raquel del Valen barkarkako obrak zein Mendi Abesbatzarenak tartekatuz zituzten formatu eta izaera bereziko saio bizia sortuz. Gainera, Dorota Grzeskowiak sopranoa eta Eduardo Zubikoa tenorearen ahotsak ere lagun izan zituzten.

FLASH

Ludoteka

Udan ere ludoteka zerbitzua eskainiko du Udalak. Uztailaren eta abuztuaren goizeko 9etatik 14etara zerbitzu hau martxan egonen da eta honeko urtetan jaiotako umeendako zuzendua da: 2008-2014 urte bitartean jaiotakondako. Prezioei dagokionez aipatu behar da honako prezio hauek izenen dira: uda osoa 160 euro eta hibate bat 90 euro. 12 plaza izanen dira, baina jendea balego bigarren taldea osatuko litzateke. Interesatuak ekainaren 23ra arte Herriko Etxeko bulegoan apuntatzen ahal dira.

Igerilekurako bonoak

Igerilekurako bonuak eskuratzeko ekainaren 12tik aitzinera kiroldegitik pasa behar da, Bertan ordainketa egiten da bonu-txartela eskuratuz. Prezioei dagokionez, Udalak 2017rako prezioak mantendu ditu, igoera egingabe. Hori bai, Ttipi Ttapa txartela dutenek %10eko deskontua izanen dute. Igerilekuko denboraldia ekainaren 18an hasiko da eta irailaren 10era luzatuko da.

Kultur agenda

Ekainaren 9an Poweradoko bizikleta martxaren etorrera (Donostia-Bartzelona). Egun horretan Elixabet Badiolak *Aita, aún quedan neces* liburu berria ere aurkeztuko du liburutegian. Ekainaren 16an Doneztebe Futbol Taldeak bere eguna ospatuko du. Ekainaren 18an Firin-farandula antzerki taldeak ikasurte bukaerako emanaldia eskainiko du.

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 11N

Ospakizunez betea dator Mendaurko Trinitate Eguna

Bazkarira
apuntatzeko
epea ekainaren
9an akituko da

Arkaitz MINDEGIA

Urte guzian zehar jende aunitzen bisita hartzen badu Mendaurko Trinitate ermitak, ekainaren 11 egun be-

rezia izanen da herritarrentzat. Goizean mezak izanen dira, batzuk gosaldu eta ermitari bueltak ematen ari diren bitartean. Eguerdian iturendar eta aurtiztarrek bazkariak antolatuko dituzte. Iturengo kasuan bazkarira apuntatzeko epea ekainaren 9a, ortziralea izanen da. Eta apuntatze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako eskola ttikiko ikasleak Iruñan kontzertua

Pasa den maiatzaren 17an Iruñako Sinfonikarekin txirula kontzertua eskaini zuten Malerrekako eskola ttikietako 4, 5 eta 6. mailako ikasleak. Bertan ziren Pulunpa eskolako ikasleak eta ederki aritu ziren.

ko Iturengo herriko ostatuan eta Ariztegi Harategian egin daiteke.

Arratsaldean enbal-

tsetan trikitilari eta akordeolariak izanen dira bazkal ondoko giroa alaitzen eta ilunabarre-

an denak herrira jeitsiko dira. Eguna ederki akitzeko Iturengo plazan musika izanen da.

ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA

Lokal komertzialak ere baditugu!

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortuarekin



135.000€tik aurrera
Informa zaitez



Zure neurria
egindako
finantziazioa

395€tik aurrera
hilean

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



ERNE! Ez galdu zure aukera

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 15EAN

101 urte bete ditu Tomasa Gorosterrazuk San Isidro egunez

Domintxenen
bizi da
semearekin eta
errainarekin

Fermin ETXEKOLONEA

Tomasa Gorosterrazu Ezkurak 101 urte bete zituen San Isidro egunean. Zorionak berriz ere. Sortzez Iriarteko bordakoa da eta 30 urtetan Domingo Juanikorenarekin ezkondu zenetik Domintxenen bizi da. Lucio Juanikorena semeak eta Maribel Elizalde errainak zaintzen dute.

Ekainaren 4an lehenbiziko jaunartzeak

Hiru mutikok eginen dute aurten lehen jaunartzea, igande honetan: Ekaitz Loiarte, Mattin Agesta eta Lander Indakoetxea. Egun berezia izanen dute.

Ezkontza

Maiatzaren 13an ezkondu ziren Mikel Telletxea eta Amaia Piñuela Udaletxean. Joxe Mari Mitxelena zinegotziak ezkondu zituen. Zorionak eta urte askotarako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Arrazondoko ahuntzak hiru antxume

Arrazondoko ahuntzak hiru antxume egin ditu lehen aldiz, harikoak hiruak. Ora in arte, bat edo bi egiten zituen, baina aurten izugarrizko sorpresa eman du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola ataria pintatu eta trinkete gisara egokitu du Udalak. Itxura ederra hartu du.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Bainuko eskuoihaletan eskaintza zabala

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

URROZ

OSPAKIZUNAK → MAIATZEAN

Ohiturari eutsiz lore eskaintzan ibili dira haurrak igandero


Lehen jaunartzea lau haurrek eginen dute igande honetan

Jaione ARIZTEGI

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere, maiatzaren etorrerarekin batera, herriko zenbait ume Ama Birjinari lore-

ak eskeintzen arituak dira. Maiatzeko igande guztietan egin dute eskaintza hori, eta argazkian ikus daitekeen bezala, sei dira aurten zeregin horretan ibili direnak. Ezkerretik hasita, Aitziber, Naroa, Mikel, Martxel, Mattin eta Amaia.

Bertzalde, aipatu aurten lehen jaunartzea lau haurrek eginen dutela ekainaren 4an.



Maiatzeko aingeruak, lore eskaintzan.

UTZITAKO ARGAZKIA

Farolak aldatu dituzte

Auzolanean oraingo honetan ere, herriko faroletako argiak aldatzen aritu dira. Orain artekoek baino gutxiago kontsumitzen dute oraingoek, baina baita gutiago argitu ere. Arrazoi horregatik, plazan indar handiagokoak jarri dituzte. Polita ageri da herria gauez orain.



Polita ageri da herria gauez orain.

UTZITAKO ARGAZKIA

BERTIZ

GIZARTEA → MAIATZAREN 24AN

Bertizko artisau denda ofizialki inauguratu dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak Bertizeko artisau dendaren inaugurazioa egin du maiatzaren 24an. Itziar Mielgo artisau eta bazkideak martxoaz geroztik denda kudeatzen du eta kide guzietan harrera eginen egun horretan bere dendatxoak erakusteko.

Inaugurazio ekitaldian Itziar Mielgorekin batera, Mikel Albisu eta Marijoxe Iparragirre izan ziren, Baztan-Bidasoa Turismoako lehendakaria eta lehendakariordea, hurrenez hurren.

Denda, Landa Turismo moko eraikinean kokatuta dago eta egunero zabalik da, 10:00etatik 18:00etara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Itziar Mielgo eskulangileak kudeatzen du denda martxoaz geroztik.

Itziar Mielgok berak lxiart zigiluarekin egin dako zur-lanak topa daitzeko dendan, baita bertako produktuen eskaintza zabala ere: gasna, oliba olio, patxarana,

Arizkongo mojek egin dako kremak... Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargotik diotenez, «Eskutik eskura filosofiaren baitan lan egitea da Elkargoaren nahia. Gure

establezimendu guztietan, landetxe, hotel, jattetxe edo aktibitate enpresatan... bezeroek "gu garena" aurkitzea nahi dugu; garen bezala ezagutu gaitzaten».

DIRU-LAGUNTZAK → IA BI MILIOI INBERTITUKO DITU GOBERNUAK ESQUALDEAN

Ur-hornidura, hondakinak eta banda zabalerako lanak egiteko diru-laguntza

TTIPI-TTAPA

34 milioi euroko inbertsioa eginen duela iragarri du Nafarroako Gobernuak, uraren goi hornidura, hiri-hondakinak eta banda zabalerako lanak egin ahal izateko. Inbertsio horiek 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren barne daude. Kopuru horretatik ia bi milioi euro eskuialderako izanen dira.

UR-HORNIDURA

Uraren goi hornidurako inbertsioen programaren barnean, Urdazubi herrian eta auzoetan 330.000 euroko inbertsioa eginen du Nafarroako Gobernuak, erdia aurten eta bertze erdia 2018an. Baztanen, Irurritako konponbidearen laugarren fasea egiteko 150.000 euro erabiliko ditu 2018an; Beran, Ibardin, 250.000 euroko inbertsioa egi-

nen du heldu den urtean, Eitzaurdiko biltegiaren eta lotuneetan. Doneztebeko ur-biltegiaren 300.000 euroko inbertsioa eginen du 2019an; Baztanen Txiskeñako iturriko hendirako 138.000 euro erabiliko ditu aurten eta Zugarramurdi, hargune eta hodi berriak egiteko 62.000 euro aurten. Programa honen baitan, erreserban gelditu dira Aurtizko errekarako hargunea hobetzeko aurreikusitako 200.000 euroak. Irurritako konponbidearen 3. fasean Zigan egin beharreko ur-hornidura lanak ez dira onartu.

HIRI HONDAKINAK

Hiri hondakinen tratamendurako inbertsioen programaren baitan, bilketa-guneetarako 125.598 euro jasoko ditu Mendialdeko Mankomunitateak aurten, eta lan bera egiteko 385.000

euro Bortzirietako Mankomunitateak. Horieta-rik 192.500 euro aurten hartuko ditu eta bertze gainerakoa heldu den urtean. Erreserban gelditu dira Malerrekan bilketa-guneetarako aurreikusitako 385.000 euroak.

BANDA ZABALA

Banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioen sailean, Leitza eta Aresoko azpiadarrak egiteko 88.000 eta 44.000 euro inbertituko ditu Gobernuak, hurrenez hurren, aurten. Berako adarra egiteko, berriaz, 30.800 euroko inbertsioa eginen du 2018an. Atal honetan, erreserban gelditu dira Etxalarko adarra (96.800 euro), Doneztebetik Zubietarako (184.800 euro) eta Donamariako (88.000 euro).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urdazubin herriko eta auzoetako ur-hornidura eginen dute.

SOLDADURARIK GABEKO BURDINEZKO ETA EGURREZKO ETXOLAK

Muntaia azkar eta erraza
Neurrira eginak

Egurrarendako etxolak, negutokiak, oilategiak, zakurrarendako etxolak...

Hodien neurriak: 5x5 cm. 10x5 cm. eta 10x10 cm.

T. 691 302 156 | dubadoorsl@gmail.com

DUBADOOR

BAINUGELARAKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

(adinekoak edota mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako produktuak)

Bainuontzia edo dutxa? Biak hobe

<p>Bainuontzia dutxa bihurtzeko Kit-a</p>	<p>Bainuontzirako ate estankoa</p>
<p>Bainuontzirako zinta jasotzailea</p>	<p>Komunerako jasotzailea</p>
<p>Kromoterapia</p>	

Informazio gehiago: www.dubadoor.com

BEKO-ERROTA
Albistur kalea - 31770 LESAKA
T. 691 302 156 | dubadoorsl@gmail.com

CEDERNA-GARALUR ELKARTEAREN DEIALDIA

Uraren Bailarak egitasmoan lan egiteko turismo teknikaria kontratatu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur elkarteak Turismo teknikari bat kontratatu nahi du *Uraren Bailarak* egitasmoan lan egiteko, Baztan-Bidasoa Turismo Gara-pena izeneko egitasmoaren baitan. Lanpostu honetarako hautagai izateko curriculumak auzkezteko azken eguna ekainaren 2a izanen da.

Hautagai izan nahi duen pertsona batek bete behar dituen gutxieneko baldintzak hauek dira: Turis-

mo arloko diplomatu titulua edo baliokidea izan; Euskalduna izatea (EGA edo baliokidea edukitzea) eta B1 gidabaimena izatea.

Turismo ekintzak dinamizatu eta koordinatzea izanen du eginkizun nagusi. Kontratu egun erdikoa izanen da sei hilabetez (luzagarria izan daiteke). Curriculumak info@cederna.es helbidera bidaliko dira. Mezuaren titulua Baztan-Bidasoa Turismo Teknikaria izanen da.

ARKUPEAK

GIZARTEA → URRIAREN 11N

Bi bazkidek omenaldi berezia jasoko dute Bazkidearen Egunean

Felipe Ganboa eta Maria Isabel Mitxelorenari elkartearen alde egindako lana eskertu nahi diete

Fernando ETXEBERRIA

Oraindik eguna urrutiko ikusi arren, Bazkidearen Eguneko prestaketak hasiak dira. Urriaren 11n izanen da eta egun horretan 151 bazkide omenduko ditu Arkupeak-ek: 100 urte beteko dituzten bi lagun; 60 urte ezkondurik beteko dituen bikote bat; 50 urte ezkondurik dituzten hamabost bikote eta 85 urte beteko dituzten 35 lagun.

Hala ere, aurten omenaldi berezia jasoko dute 85 urte beteko dituzten bi bazkidek, Arkupeak-en sorreran eta funtzionamendu egokian beraien lana erabakiorra izan zelako. Felipe Ganboa eta Maria Isabel Mitxelorena izanen dira. Hainbat lagunekin batera, Ganboa izan zen elkartearen sortu zuena, eta horretarako eskualdeko herrietan barna ibili zen ordezkari laguntza eskatuz, Nafarroa iparraldeko ekintza garrantzitsue-

netariko bideragarria izan zedin. Nafarroako Gobernuak ere aitortu zion egindako lana eta 2010eko ekainaren 29an Karlos III.aren Gurutzea eman zion. Hala, 25 urte egindako lan eta dedikazioagatik, Arkupeak-ek ere bere miresmena, aitortzea eta esker ona adierazi nahi dizkio.

Maria Isabel Mitxelorena, berriz, hamabi urtez Arkupeak-eko idazkaria izan zen. Boluntario talde zoragarri batekin aritu zen lanean, eta 2.600 bazkide baino gehiagoko eta irabazi asmorik gabeko enpresa baterako aldatketaren lekuko izan zen. Elkartetik, beraz, esku zabaltasunez egindako lan hura eskertu nahi diote.

Lourdesera bidaia

Maiatzaren 11n, goizean goiz abiatu ziren 71 bazkide Lourdesera, Erratzuko apezak eguerdian eskaini zuen mezara ailegatzeko. Ingu-rua ezagutzeko aukera ere izan zuten, baita haitzulora hurbiltzeko aukera ere. Bazkaldu ondotik, azken urteotan ibilbide desberdina duen gaixoen prozesioan parte hartu zuten eta etxerako bidea hartu zuten gero.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

47 mendizale Leitzako Itzulian

47 mendizale elkartu ziren joan den maiatzaren 9an Leitzako plazan. Ohitura bihurtua den argazkia atera ondotik, antzinako geltokirako bidea hartu zuten, eta trenbidean barna, Gipuzkoako mugara hurbildu ziren. Plazaola eta Lasarte bertsolaria jaio zen Franki baserrietatik pasatu ziren lehenbizi, eta gero Leitzelarretik. Eskibara ailegatutakoan gosalduta zuten. Haritzaundin barrena Urdola izeneko inguru zoragarria ere ailegatu ziren, eta Baztarlara eta antenara igo ziren gero. Arramia eta Abel Barriolaren bordatik pasatutakoan, berriz ere geltokira jeitsi ziren eta handik plazara, lau ordu eta erdiko ibilaldia bukatuz. Eguerdian denak Musunzar jatetxean elkartu ziren bazkaltzeko, eta eguna bo-robiltzeko, musika, kanta eta dantza izan zuten Tomasen eskutik.

Benidormera bidaia

Maiatzaren 13an 41 bazkide joan ziren Benidormera, hamahiru eguneko egonaldi ba-

tekin gozatzerako. Bardeetarako bidaian 141 bazkidek eman dute izena eta ekainaren 8an joanen dira, eta Pasai

Donibanera joateko 92 lagun apuntatu dira. Hortaz, bi egunetan egiten dira ateraldiak: ekainaren 20an eta 22an.

LA CAIXAREN GIZARTE EKINTZAREN ESKUTIK DIRU-LAGUNTZA

Elizondo, Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotokiak martxan jartzeko 8.000 euro

F. ETXEBERRIA

La Caixaren Gizarte Ekintzak 8.000 euroko diru-laguntza eman dio Arkupeak erretiratuen elkarteari, Elizondo, Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotokiak martxan jartzera bideratua. Jose Luis Legarra presidentea aitatu duenez, "dagoeneko 30 pertsonak erabiltzen dituzte jubilotokiak, eta zerbitzu hori Arizkun, Oronoz-Mugairin eta Donezteben ere ezartzeko asmoa dugu". Maiatzaren 18an, Arkupeak elkarteak Donezteben duen egoitzan egin zuten ekitaldia.

Jarduera ezberdinak eskaintzen dituzte jubilotoki hauetan: soinketa eta psikomotrizitatea, eskulanak, gaur egungo gaien inguruko tertuliak, jolasak, irteerak edo txangoak. Elizon-



don astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 13:00etara biltzen dira; Zugarramurdin asteartetan 16:00etatik 19:00etara eta Urdazubin ortzegunetan 16:00etatik 19:00etara. Behar duten parte hartzaileek jarduerak dituzten lekuraino hurbiltzeko garraio zerbitzua erabiltzeko aukera ere badute.

HEZKUNTZA → MAIATZAREN 23AN

Lanbide Heziketa Zentroaren kokapena aztertzeko bisita

Parlamentuko Hezkuntza Batzordea eta eskualdeko udal agintariak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, Baztan-Bidasoaldeko Lanbide Heziketa Zentro Integralkokatzeko aztertzen

ari diren hiru balizko kokapenak bisitatu zituen maiatzaren 23an. Eskualdeko alkateekin batera NARBARTEN, ORONOZ-MUGAIRIN eta DONEZTEBEN izan ziren.

Luis Zarraluqui (UPN), Isabel Aranburu eta Consuelo Satrustegi (Geroa Bai), Esther Korres (EH Bildu), Tere Saez eta Fanny Carrillo (Podemos-Ahal Dugu), Carlos Gimeno (PSN)



UTZITAKO ARGAZKIA

Hezkuntza Batzordeko parlamentariak eta udal ordezkariak, eremuak ikusten.

eta Javier Garcia (PPN) izan ziren bisitan.

Zentro berriak 15.000 eta 20.000 metro koadro artean hartuko lituzke. Baztan, Bertizarana nahiz Doneztebe-ko Udalak prest daude eremu horiek uzteko eta batzuen nahiz bertzeen aldekoak eta kontrakoak aztertu zituzten es-

kualdeko udal ordezkariekin batera.

Oronozko eremua, suhiltzaileen parkearen gibeletan dago eta Nafarroako Gobernuarena da.

Narbarteko eremua, 20.000 metro koadro ditu eta horietatik 18.000 metro udalarenak dira eta bertze 2.000

Martiko enpresarenak, baina udalari nahitaez uzteko aukera badu.

Doneztebe-koari dagokionez, Baztan-Bidasoaldean erditsuan dagoela da bere abantaila nagusia. Eremua partikular batena da, baina badirudi udalarekin negoziatzeko prest dagoela.

Zure neurriko tailerra!



AUTO-MARKA OFIZIALAREN BERMEA GALDU GABE

ORDEZKO PIEZA HOMOLOGATUAK

www.buscounroller.com



Tailer-sarea

ELITE



Premium

1.000 tailer baino gehiago zure zerbitzura

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 22AN

Ohiturari ez dio hutsik egin Mikel Donearen irudiak

Udal ordezkariak Goiaingeruaren irudiari harrera egiten diote Barrankan

Fernando ETXEBERRIA

Beste urte batez, Mikel Donearen irudia bisitan izan dugu herrian. Maiatzaren 22an etorri zen, Malerrekako herrietan barna ibiltzen den On Jesus Sotilen eskue-tan, eta Angel lagun leondarrarekin batera. 18:00 aldera 30 bat herritar bildu ziren eliza atarian eta elkar agurtu ondotik hasi zen ospakizuna: santua bedein-katu ondoren, meza eskaini zuten eta gero, Go-

iaingerua adoratu zuten. Bukatutakoan, Eratsunerako bidea hartu zuten, han gauza bera egitekoa baitzuten. Hala ere, aipatzekoa da, aurretik, On Jesus herritar batzuen etxeetara joan zela bisitan santuaren irudiarekin.

Eratsundik berriz Ezkurrara etorri ziren bueltan, aspaldikoa den ohiturari hutsik egin gabe. Duela urte askotik udal ordezkariak Barranka Ostatuan elkartzen dira Goiaingeruaren irudiari harrera egiteko. Aurten ere, ohiko argazkia egin zuten On Jesus Sotil kapilauarekin batera, eta ondotik, denek elkarrekin afaldu zuten, santuaren irudia bertan zutela. Mus partida batzuekin borobil-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Mikel Donearen irudia herrian gurtu dute aurten ere.

du zuten eguna. Batzuek diote erlijioa eta politika ez direla nahasi be-

har, baina hemen ez da inolako krisi filosofikorik sortzen eta inori kal-

terik egiten ez dion tradizioarekin segitzen dute.

EKAINAREN 17AN EMANEN DIOTE SARIA ERATSUNDARRARI

Julian Retegik Karlos III.aren Gurutzea jasoko du Nafarroako Gobernuaren eskutik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea emanen die zazpi pertsona eta erakunderi, dagozkien jardueren bidez, «Foru Komunitatea garatzen, hedatzen eta ezagutzarazten nabarmen laguntzeagatik». Zehazki, zenbait foru-dekretu onetsiz, hauei banatu zaie kondekorazioa: Aralar Mendi Elkarte, "Artzai Eguna" antolatzen duena; Nafarroako DYA bide-laguntza elkarte; Humberto Bustince, zientzialaria; Jose Ulibarrena, eskultorea; Julian Retegi, pilotaria; Mirentxu Purroy, kaze-

taria eta Javier Ochoa, enologoa. Kondekorazio hori datorren ekainaren 17an ematea aurreikusita dago.

Julian Retegi Barberiari buruz, «antzinako kirola den esku-pilota sustatu eta zabaldu du, Nafarroan bertan eta Nafarroatik kanpo garatzen eta hedatzen lagunduz» dio Nafarroako Gobernuak.

Bere kirol ibilbideari dagokionez, buruz buruko txapela hameka aldiz irabazi duela azpimarratu du Gobernuak, historian gehien irabazi dituena. Bortz aldiz binakako txapelketa ere irabazi du eta lautan lau eta erdikoa.



GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK, HONDAKINEN PARTZUERGOAK ETA IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAK

Materia organikoa zuzen bereiztea bultzatuko duen kanpaina abiatu dute

Organikoa edukiontzi marroian edo konpostatzeko makinan botatzearen garrantzia azpimarratuko du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Hondakin Partzuergoak eta Iruñerriko Mankomunitateak etxeko hondakinak ongi bereizteko jardunbide egokiak sustatzeko, eta materia organikoa edukiontzi marroian edo konpostajea egiteko makinan botatzearen garrantzia nabarmentzeko informazio-kanpaina bat aurkeztu dute.

¿Marrones? Sí, gracias / Organikoak? Bai, mila esker izenarekin, hondakin biodegradagarriak, janariak, inausketen eta lorezaintzako hondakinak nagusiki dagokion edukiontzian bukatzea da helburua, berriro erabili ahal izateko. Behar ez den tokian botatzen badira, materia organikoa ezin da berreskuratu eta bertze zati batzuk kutsa ditzake, hala nola ontziak.

Kanpaina bi astetan zabalduko da, komunikabideetan, irrati-iragarrietan, lineako hedabideen bannerretan eta tokiko erakunde bakoitzak bere berariazko beharren arabera egingen



UTZITAKO ARGAZKIA

Organikoa zuzen bereizteko kanpainaren aurkezpena, Sarrigurenen.

dituen jardueren bidez.

Ekimen honen asmoa da zati organikoa, herri bakoitzean ezarritako dagoen sistemaren arabera, bereizteko eta botatzeko konpromisoa hartzeak duen garrantzia nabarmentzea herritarrei: botatzeko sistema (5. edukiontzia edo atez ate biltzea), edo konpostajea tratatzeko sistema (etxekoa edo komunitarioa). Hondakin organikoak etxe bakoitzean ongi bereizten badira bakarrik aprobe-txa daitezkeen baliabideak dira.

Kanpaina honen aurkezpena Sarrigurengo (Eguesibar) konpostaje komunitarioko sei eremu-tako batean egin zuten maiatzaren 16an, eta bertzeak bertze Isabel Elizalde, Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilariak; Aritz Ayesak, Nafarroako Hondakin Partzuergoko lehendakariak;

Mikel Ortega, Partzuergoko lehendakariordeak eta Alfonso Etxeberriak, Eguesibarreko alkateak parte hartu zuten. Kanpainaren edukia aurkeztu ondoren, auzokoei botatuko hondakin organikoekin konposta nola ateratzen den zuzenean ikusteko aukera izan zuten.

Ekitaldian Nafarroako gaineko Mankomunitateetako erakundee-tako ordezkari eta teknikariak ere parte hartu zuten, Nafarroako Gobernuko NILSA enpresa publikoak zuzentzen duen Nafarroako Hondakin Partzuergoaren barrenean daudenak. Mankomunitate hauek daude Partzuergoaren barrenean: Bortzirriak, Malerreka, Alto Araxes, Sakana, Bidausi, Baztan (Udala), Eska-Salazar, Irati, Zangozako eskualdea, Mairaga, Izarbeibar, Montejurra, Erriberagoitia, Erribera eta Mendialdea.

2017-2027 HONDAKINEN PLANA

Nafarroan ontziak, papera-kartoia eta beira bereiztea duela zenbait urtetatik ezarrita dago eta estatuan berreskuratze-tasarik handienak lortzen ditu. Hala ere, materia organikoaren gaikako bereizketa etxeetan oraindik ez dago hain zabaldua eta ez du arrakastarik. Nafarroako Gobernuak otsailean aurkeztu zuen 2017-2017 Hondakin Plan berriak herritarren sentikortzea nabarmentzea du helburu gisa, eta horretarako kanpaina hau egiten ari da, materia organikoa murrizteko eta zuzen bildu eta tratatzeko estrategia integral baten barruan.

Kontuan hartu behar da 2015. urtean 266.530 Tona hondakin sortu zirela etxeetan eta dendetan, eta horietatik, 119.939 Tona biohondakinak ziren. Nafar-

koitzak 1,14 kilo hondakin sortu zituen egunero. Horietatik, % 33 bakarrik bereizi ziren, eta Hondakin Planaren helburua hurrengo hamarkadan % 70 lortzea da. Beraz, ezinbertzeak dira informazio-lanak eta kontzientziazio eta komunikazio kanpainak.

Planean ezartzen den moduan, urte honetan zehar eta 2018. urtean materia organikoaren gaikako bilketa zabalduko da Nafarroako bazter guztietara, mankomunitate bakoitzak ezartzen duen sistemarekin. Hondakin kudeaketan parte hartzen duten erakunde guztien asmoa Nafarroako biztanleak biohondakinak etxean bereiztea eta edukiontzi egokiak botatzeak duen garrantziaz jabetzea da.

Horrez gain, azpiegituren zuzkidura handitzea ere aurreikusita dago, Nafarroako biohondakin guztiak konpostaje instalazio publikoetan edo gizarte-erakunde enpresek in-tzartutako instalazioetan tratatzeko. Horrela, sortutako konposta, sortzen den lekutik hurbil aplikatu ahal da. Horrela, konpostaje egiteko beste hamar instalazio abian jarriko dira: Baztan-Bidasoa, Sakana, Mendialdea, Bidausi, Agoitz, Ilunberri, Tafalla, Carcar, Azkoien, Culebrete eta beste bat Iruñerrian. Bestalde, Carcarreko tratamendu-fabrika hobetu eta handituko da.

ARESO

HITZARMENA → PROIEKTUAREN %80 NAFARROAKO GOBERNUAK ORDAINDUKO DU

Udalak hirigintza plan berria egitea adostu du Gobernuarekin

70.000 euro erabiliko dituzte proiekturako

Juana Mari SAIZAR

Udalak azken urteetan behin baino gehiagotan izan du burutan hirigintza plan berria egiteko asmoa. Izan ere, gaur egun indarrean dagoen plana 1996. urtean onartu zen eta gerotik hainbat aldaketa gertatu dira.

Plan horrek definitzen zituen zenbait eremu garatu baldin badira ere, Bi ahizpak esaterako, herrian etxe txikiagoak edota trinkoagoak eraikitzeko arazok izan dira. Gainera, garatzea aurreikusten zen sektore nagusia (landa edo erreka inguruak) ezin izan dira garatu bere unean ezarritako baldintzak betetzea zaila zelako eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Duela hogeitazero urte baino gehiago osatu zen indarrean dagoen hirigintza plana.

uholde eremuan kokaturik daudelako.

Premiazko gaia zela ikusita, Udala hartu emanean aritu da Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuarekin. Lankidetzaz hitzarmena sinatu berri dute eta orain, hirigintza plan berria osatzen hasiko dira.

70.000 euro bideratuko dituzte proiektu honetarako eta horietatik, %80a Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du eta %20a Udalak ordaindu beharko du.

Kontuan izan behar da horrelako proiektuak ez direla goizetik gauera egiten. Lur-eremuen ezaugarriak ikusi, katalogazioa egin...

asko dira egin beharreko lanak eta prozesua luzea izango da. Hala, koetan gutxienez ohi-ko iraupena lau bat urtekoa izan ohi da. Hainbat tramitazio eta azterketa egin behar izaten dira, parte hartze prozesuak martxan jarri, irizkiak bildu, herritarrei informazioa emateko saioak antolatu, alegazioak aurkeztu...

DEIALDIA

Pestak antolatzeko bilera ekainaren 15ean

Juana Mari SAIZAR

Herriko pestetako ekitaldi nagusienak dagoeneko erabakita daude baina oraindik xehetasun txiki batzuk lotzea falta da. Horien guztien inguruan hitz egiteko bilera deitu dute ekainaren 15ean, 20:00etan Udaletxean. Aurten izango diren aldaketa batzuk ere iragarri dituzte. Kuadrillen eguneko otordua prestatzerakoan denen parte hartzea eskatuko dute eta kuadrilla bakoitzeko pertsona batek joan beharko du lanera. Menua ere aldatuko dute eta paellaren ordean makarroiak izango dira bazkaltzeko.

HAURREN INGURUTXOA

Eskolan eta Sastinean laister jarriko dute izen-emateko papera. Aurten asmoa ingurutxoaz gain, beste dantza pare bat ere ikastea da.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Bakartxo Anizek 'Piedras con Alma' liburua aurkeztu du

Herrian bizi den argazkilariek bere liburuaren aurkezpena egin zuen maiatzaren 12an. Bertaratu zirenak gustura egon ziren Bakartxok emandako azalpenak aditu eta egindako lana hurbiletik ezagutzen. Herriko festetan argazki erakusketa jartzeko asmoa duela ere jakin dugu, animaliei ateratako argazkiak ikusteko aukera izango da orduan Udaletxean.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Jaunartzeak

Maiatzaren 14an lehenbiziko jaunartzea egin zuten Maddi, Eunat eta Jonek. Egun polita igaro zuten familia eta lagunarteko giroan.

KULTURA → UZTAILAREN 1EAN

Zaborteziaren ingurumena berreskuratzeko lanen prozedura abiatu da

Eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 29an bukatu da

TTIPI-TTAPA

Zaborteziaren Ingu- rumena Berreskuratzeko obra esleitzeko pub- lizitaterik gabeko pro- zedura irekiari hasiera eman zaio. Obra lan hauek, Jesus Ignacio Diego Pereda Ingenie- riari idatzitako proiektu- an aurreikusiak daude. Aipatutako obra lanen esleipen prozedura arautuko duten Plegu administratiboak eta do- kumentazio teknikoak Udaleko Idazkaritzan, Hernanin eta Iruñean izan dira interesatuen esku.

Eskaintzak aurkezte- ko epea maiatzaren 12tik maiatzaren 29ra bitartean izan da eta be- raz, zabortezi berres- kuratzeko hasteko lehen urratsa eman dela esan daiteke.

Yoga klaseak

Udako solstiziorako prestatzeko Kundalini yoga klaseak emanen ditu Regina Brücker-ek udaletxeko ganbaran. Ekainaren 12an (astele- hena, 18:00etatik

19:30era), ekainaren 17an (larunbata, 10:00etatik 11:30era) eta ekainaren 19an (as- telehena, 18:00etatik 19:30era) izanen dira ari- keta fisikoa eta medita- zioa uztartuko dituzten klaseak.

VIII. Iskibi BTT zeharkaldia igandean

Iskibi kanpinak an- tolatzen duen BTT ze- harkaldiaren zortziga- rren edizioa eginen da ekainaren 4an, igandean. Izen-ematea 08:00etan hasiko da eta irteera 09:00etan izanen da. Parte hartzeko, In- ternet bidez eman dai- teke izena [www.kirol- probak.com](http://www.kirol-probak.com) webgune- an, 12 euro ordainduta federatuek eta 14 euro federatugabeek edo egun berean kanpine- an (16 eta 18 euro).

Iaz bezala, bi zirkui- tu egonen dira aukeran: luzeenak 43 kilometro izanen ditu, 1.360 me- troko desnibel metatua- rekin eta laburrenak 30 kilometro, 1.050 metro- ko desnibelarekin. Ze- harkaldian parte hartu behar dutenek eta la- gunek larunbat gauean Iskibi kanpinean doan lo egiteko aukera izan- nen dute eta proba egu- nerako 12 euroko me-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Zazpi bikote pilota gozo txapelketan

Maiatzaren 13an jokatu zen Umore Ona pilota elkarteak antolatutako binaka- ko pilota gozo txapelketan zazpi bikotek parte hartu zuten eta finalean Ekaitz Nabarte eta Jon Zabaleta nagusitu ziren Juantxo Apezetxea eta Jon Ape- zetxearen aurka. Giro bikaina frontoian eta maila ona erakutsi zuten.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Herritarrek ere parte hartu dute Goizutrail lasterketan

200 korrikalarik bukatu zuten maiatzaren 21 ean Goizutrail lasterketaren laster- ketaren laugarren edizioa. Kirol orrialdeetan duzue informazio gehiago, baina aparte aipatzekoa da herritarren parte-hartzea. Ez dira asko izan herriko korri- kalariak, baina horietako gehienak ageri dira argazkian. 25 kilometro zituen ibil- bide luzean, Hodei Lujanbio herritarra izan zen eskualdeko korrikalaririk bizko- rrena eta hamalagarren postuan bukatu zuen (2:33:16). Alex Salaberria 88. izan zen (3:19:49) eta Mikel Huizi 103. (3:35:22). 10 kilometroko bilbide labur- rean, berriz, Xabier Apezetxea hemezortzigarren izan zen (1:00:47), Joxe Mari Lujanbio 41. (1:10:38). Ane Zinkunegi izan zen herriko eta eskualdeko emaku- me bakarra (1:25:27). Giro ederra izan zuten kirolariek lasterka egiteko eta de- nek goraipatu zuten antolaketa bikaina.

nua prestatu dute ber- tan bazkaldu nahi du- tenentzat.

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Par- te-hartzaile guztiak ase-

guratuak egonen dira, bi hornidura-gune ego- nen dira eta bukaeran, luntxa, opari zozketa, duxtak eta bizikletak garbitzeko aukera ere

izanen da. Hori bai, txi- rrindulari guztiak ins- kripzio-mahaitik pasa beharko dute, ondoren eginen den opari zozke- tan parte hartzeko.

LEITZA

MENDI-LASTERKETA → EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKAREN 5. EDIZIOA

Ekainaren 3an 750 lasterkari abiatuko dira erronka betetzera

Bezperan hitzaldia eskainiko du Jokin Lizeagak

JM BARRIOLA

Azken hilabeteetako entrenamenduek ekainaren 3an emanen dute fruitua, Euskal Herriko Mendi Erronkaren eguna ailegatuko baita.

Ohikoa denez, bezperatik nabaritu da giro berezia herrian. Ekainaren 2an 17:00etatik 19:00etara egingen dute dortsalen banaketa eta 19:30ean zineman Jokin Lizeagak *Lesioak kirol ibilbidean* hitzaldia eskainiko du.

Ekainaren 3an 08:00etan hasiko da erronka plazan baina aurretik Juan Maria Feliumendizaleari omenaldia egingen zaio. 67 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek, 6 kontrol gune igaro eta tardean 8 hornidura-postu izanen dituzte indarrak hartzeko. 7.200 metroko gainbe-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Herriko konbinatu txapelketa jokatu da probaren baitan eta 4 puntu lortuko dituzte finisherrek.

hera du probak eta Erronkaren baitan, Kilometro Bertikala ere jokatu da Irumugarrietako igoeran, 3.600 metroko gainbehera positiboari aurre egin beharko diote. Irumugarrieta da hain zuzen ibilbideko punturik altuena 1.431 metrorekin eta Arribe baxuena 222 metrorekin. Saillak 13 orduz azpitik osatu beharko dute ibilbidea. 14:00ak aldera espero dituzte lehenbiziko korrikalariak eta sari banaketa 20:00ak inguruan izanen da.

EKAINAREN 10EAN

Euskal Herriko 20 sagardogileren zukuak plazaratuko dituzte

JM BARRIOLA

Bederatzigarren urtez ospatuko da Sagardo Eguna eta ekainaren 10erako jarri dute hitzordua. 19:00etatik aurrera hainbat sagardo dastatzeko aukera izanen dute herriko plazara bertaraten direnek. Gipuzkoa eta Nafarroan ekoiztutako sagardoak izanen dira, hoguei sagardotegi desberdinetatik ekarritakoak. Herriko hainbat lagun ariko dira sagardoak zerbitzatzeko eta sagardogile batzuek ere bertan izanen dira. Jatekoa ere ez da faltako, herriko tabernariak prestatutako pintxoak eskainiko dituzte eta.

'LEITZA CHEF' LANAREKIN

Amazabalgo ikasleak Gozamenez lehiaketako irabazle

JM BARRIOLA

Pasa den urtean Gozamenez lehiaketako epaimahiaren saria eskuratu zuten Amazabalgo ikasleak eta aurten, 3. mailako ikasleek haien marka hobetu dute, bi sari eskuratu dituzte eta. 12-17 urtekoen kategorian epaimahiaren saria jaso zuten eta baita publikoaren saria ere. *Leitza Chef* izeneko lana aurkeztu zuten film laburren lehiaketara, sexualitateari buruzko errezeta desberdinak biltzen dituen lan originala. Bideoarekin hasi aurretik, gaiaren inguruko lanketa egin zuten



gizarte zerbitzuaren laguntzarekin. Bi tailer prestatu zituzten gazteek sexualitatearen eta harremanen inguruan solasteko. Bertan ateratako ondorioak oinarritzat hartuta, osatu zuten film laburra. Zorionak guztio!

FLASH

Anari zuzenean ekainaren 2an

Gaueko 10:30etik aurrera, abeslari gipuzkoarraren zuzenekoaz gozatzeko aukera izanen da Atekabeltz gaztetxean. *Epilogo bat* azken lana aurkeztuko du.

'Sexologoek idatzitako errotikoak' Jubin

Ekainaren 8an Itxaso Torregrosa, Irune Iturbide eta Goreti Etxeparek liburua aurkeztuko dute 19:00etan Jubin.

Ogasuneko trami-teak online

Saio praktiko baten bidez Haziendako trami-teak on-line egiten ikasteko aukera eskainiko dute Cederna Galarur eta Nafar lansa-reak. Ekainaren 12an 10:00etatik 12:00etara izanen da tutoriala eta batez ere, ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei dago zuzendua. Izen-emailea: mendialdea@cederna.es helbidera idatzita edo 617 609 328ra deituta egin behar da.

Espetxeetara elkartasun martxa

Maiatzaren 20an euskal presoak dauden espetxeetara martxak antolatu ziren Euskal Herrian. Leitzatik ere hainbat lagun joan ziren Frantziako Roanne hirian kokatuta dagoen espetxera *kalerak* aldarria emanez bertara.

'Telesforo ez da bogart' antzezlan

Iduzkilore taldeak *Telesforo ez da bogart* antzezlan taularatuko du ekainaren 17an 19:00etan Zineman.

HIRIGINTZA → MAIATZAREN 12TIK EKAINAREN 12RA

Ehunka lagunek eman diote babes ekainaren 18ko herri-galdeketa

16 urtetik gorako herritarrek dute bozkatzeko aukera

JM BARRIOLA

Erabaki hitzaren itza-lean jendetza bildu zen herriko plazan, Mendialdeko Gure Esku Dagok antolatutako aurkezpenean. Bertan egin zuten ekainaren 18an erantzun beharreko bi galderen aurkezpena *Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?* eta *baiezkoa bada, Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?* Ekitaldiaren baitan eta giroa berotzen joateko La Jodedera taldeak egi-



ARGAZKIA: GURE ESKU DAGO

Mendialdeko 300 lagun bildu ziren maiatzaren 21ean egindako agerraldian.

dako abestia ere aurkeztu zuten. Eskualdeko musikari, abeslari, bertsolari eta ekoizleek parte hartu dute abestiaren grabazioan eta bideo-klipa ere egin dute. Datozen egunetan ikusteko aukera izanen da.



Ba al zenekien

Atekabeltzek antolatutako film laburren lehiaketan 11 lan ikusteko aukera izan zela. Horietatik 9 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta Arkaitz Lasarte, Miren eta Eneko Astibia izan ziren irabazleak.



ARGAZKIA: UDALA

Itzaire haur-eskola auzolanean txukundu dute

Maiatzaren 20rako haur-eskolako patioa txukuntzeko auzolan deialdia egin zuen Udalak. Haurreskolako ikasleen gurasoak, hainbat herritar boluntario... bildu ziren eta ederki borobildu zituzten egin beharreko lanak.

II. EDIZIOA IRAILAREN 30EAN

Ekainaren 5ean irekiko dute Leitzulian izen-emateko aukera

JM BARRIOLA

Leitzuliaren bigarren edizioa irailaren 30ean izanen da, larunbata eta goizeko 9etan hasiko da proba. Izen-ematea, Kirolprobak web orriaren bidez egin beharko da eta ekainaren 5etik irailaren 24ra arte egonen da aukera. Antolatzaileek gogorazi dute egunean bertan ezin dela izena eman. Iazko prezioa mantentzea erabaki dute eta hala, federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek 18 euro. Ibilbidea ere mantentzeko asmoa dute (aldaketa tikiren bat salbu) eta 42 kilometroko luzera eta 1400 metroko gainbehera positiboa izanen du, beraz, hasi bizikletari egurra ematen!



ARGAZKIA: UDALA

Kultur Aroko ekitaldiak erantzun ona ari dira izaten

Kultur Aroa aurrera doa poliki-poliki eta badirudi ekitaldiek herritarren interesa piztu dutela. Aurten artxiboetan zeuden egitarauak bildu eta erakusketara pres-tatu da. Urte batzuetakoak falta dira, beraz, Kultur Taldeak deia egiten die herritarrei, falta den aleren bat etxean gordeta baldin badauka taldekideren bati uzteko, kopiak atera ahal izateko.

BAZTAN

GIZARTEA → BALLEKO ETXEAK BI IKASLE LAGUNDUKO DITU IKASTURTE HONETAN

Baztanekin zerikusia duten ikasketa akaberako lanei laguntza eman zaie

Nahikari Vesga Maisterrena amaiurtarrak eta Ainhoa Astiz Goñi leharoztarrak 500na euro jasoko dituzte

TTIPI-TTAPA

Ikasketa akaberako lanak edo proiektuak diruz laguntzeko bigarren deialdiko laguntzak ebatzi berri ditu Udalak. Aurtengo onuradunak Nahikari Vesga Maisterrena amaiurtarra eta Ainhoa Astiz Goñi leharoztarra dira.

Nahikari Vesga Euskal Ikasketetako gradu-ko ikaslea da EHUn Gasteizko fakultatean eta bere lana Baztango galdegai egitura baten azterketa izanen da; horrek hizkuntzaren teoriarako dituen ondorioak esploratuz. Ainhoa Astiz Goñi, bertzalde, Haur Hezkuntza gradu-ko ikaslea da NUPen, Iruñean eta ikasketa akaberarako *Adimen anitzak haur eskola baten antolaketan* izenburuko lana eginen du. Lan honek Baztango Haur Eskolaren hezkuntza aztergai izanen du eta Baztan Haur Eskolaren eta Adimen Anitzen Teoria nola bateratzen diren ikertuko du. Ikasle bakoitzak lana egiteagatik 500 euroko laguntza jasoko du.

Maiatzaren 19an epaimahaia bildu zen eta aipatu proiektuek

deialdiko baldintzak betetzen zizutela ikusirik laguntza ematea erabaki zuen. Epaimahaia Baztango alkateak, udal idazkariak, Garalurreko teknikariak eta Lanbide eskola eta Lekarozko ikastetxeetako zuzendariak osatzen dute. Deialdiak udal aurrekontuetan 2.000 euroko kontu-saila zuen, lau laguntza eman ahal izateko, nahiz bi bakarrik aurkeztu diren. Deialdiaren onuradunek dirulaguntza jasotzeko lanak egin eta tutorearen ongi ikusia beharko dute. Behin lana eginda, bakoitzak bere herrian lanaren aurkezpen publikoa egin beharko du.

Aurtengo deialdia iazkoaren segidan heldu da eta deialdiaren hasierako helburuei jarraiki, poliki-poliki Baztani buruzko ezagutza corpusa eraikitzen ari da. Iaz Alaitz Arretxea, Josune Berho eta Oihana Otxandorenak turismoaz, XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxe tipologiaz eta mu-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Josu Elberdinek maisu-klaseak eman ditu

Elizondoko Abesbatza aurtien bere 75. urteurrena ospatzen ari da eta ekitaldi ezberdinak burutzen ari da horren data garrantzitsua behar bezala ospatzeko. Maiatzaren 13an, Pasaiako Josu Elberdin musika-konpositore eta irakasleak maisu-klasea eman zien Baztan-Bidasoaldeko, Iruñerriko eta Ipar Euskal Herriko 80 bat abeslariri Elizondoko Kasinoan. Klasea ematerakoan, musikari handiak 'No me cierres los ojos', 'Esta tierra', 'Mi corazón se muere de amor', 'Omnia vincit amor', 'Kirie' eta bertze zenbat lan hartu zituen oinarritzat. Ondotik, parte-hartzaileek Eskisaroi jatetxean bazkaldu zuten eta bazkalondoa, ezusteko emanaldia eskaini zuten berriz ere Kasinoan atarian. Aipatzekoa da Josu Elberdinekin Haur-gazte kantarien tailerra ere egin zutela maiatzaren 6an Iruritako Gizarte Bilgunean eta kontzertua eskaini zuten maiatzaren 20an, Haur-Gazte Kantari Topaketaren seigarren edizioan.

til-dantza eta nesken parte hartzeaz lanak egin zituzten. Ikusten ahal den bezala izaera eta jakintza arlo desberdineko lanak.

Ba al zenekien

Joseba Otondo alkatea, CUP alderdiak gonbidatuta, Katalunian lur-bankuei buruz egindako go-goetaldian parte hartu zuela bailarako herrilurren kudeaketaz solasteko.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALIETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 16AN HASI ZEN MARIEZCURRENA ERAIKUNTZA ENORESA

Elizondoko plazaren berritzeak 49.125 euroko kostua izanen du

Ezkutuko akatsengatik markesinak hondatu ziren eta horiek kendu eta itxura berria emanen zaio plazari, kiosko berriarekin

TTIPI-TTAPA

Elizondoko plazako lanak egiteko kontratua sinatu zuten udalak eta Mariezcurrena eraikuntza enpresak maiatzaren 11n eta berritzea abiatzeko alderdi juridiko eta tekniko guztiak loturik lanak maiatzaren 16an hasi ziren. Egin beharrekoak BEZ gabe 49.125 euroko kostua izanen du eta udalaren gain 23.083 geldituko da; gainerakoa kontratistak ezkutuko akatsen kontzeptu gisa ordaindu beharko du.

Plaza berritzeko kontratua sinatuta maiatzaren 16an plazako mar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxura hau hartuko du plazak lanak akituta

kesinak eskuz urratzen hasi ziren eta ondoko asteetan kioskoa eta belar-parterrea eginen dituzte. Lanak ongi bidean ekainaren akaberarako eginen dira, nahiz kontratuan uztailaren 14 artioko epea ematen den. Proiektuak Elizondoko Herriko Batzarren oniritzia du. Joan den buruilaren 28an egindako batzarrak Laborra arkitektuak egindako proposamenari

baiezkoa eman baitzion. Elizondoko plaza berritzeko arrazoi nagusia markesinak hondaturik daudela da. Plaza egin eta guttira kanpoko giroa (euria, haizea...) markesinak hondatzen hasi zen. Udaleko teknikariak egindako txostenaren arabera ezkutuko akatsengatik.

Horregatik, markesinen konponketa egin ahal izateko udala plazaren proiektua idatzi

eta egin zutenekin harremanetan paratu zen. Alta, obraren egileak, markesinen behin betiko konponketarik ez zuela bermatzen ahal erran zuen, seguru aski, moldaketak egin eta 5-7 urtera berriz zartatuko zirela.

Horrela, Udalak markesinen konponketarako ezkutuko akatsengatik enpresak ordaindu beharrekoa 26.081 euro (BEZ kanpo), pla-

za eraberritzeko erabilteza pentsatu zuen eta, horretarako, Elizondoko herriarekin orain eginen den plaza berriaren diseinua landu zuen. Proiektuak, BEZ gabe, denera 49.125 euroko aurrekontua izanen du. Udalaren gain 23.083 euro (BEZ gabe) geldituko da eta Mariezcurrenaren ezkutuko akatsengatik 26.081 euro bere gain hartu beharko du.

KULTURA

Pedro Esartek liburu berria argitaratu du Pamielarekin

TTIPI-TTAPA

España y Navarra desde el siglo XIX. La imposición que encubren los «Convenios» izenburupean liburu berria argitaratu eman du Pedro Esarte Muniain elizondarrak, Pamiela argitaletxearekin. Izenburuak dioten bezala, XIX. mendetik Espainia eta Nafarroa artean egin diren kontzertuak ez direla berdinen artekoak dio Esartek liburuaren, «nafarron instituzioak ezabatzearen ondorioz ezarritako inposizioak baizik».

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK



TOLDOAK ETA MOSKITERAK



ETXEAK MERTATARITZA OSTALARITZA

BAZTAN

GIZARTEA → 3 ETA 12 URTEKO NESKA-MUTIKOEI ZUZENDUA

Euskarazko Udako Jostaldian izen-emateko epea ireki dute

Erratzun eta Elizondon eskainiko dira eta ekainaren 7ra arte eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA

Euskara eta aisialdia uztartuz, aurrean ere udako jostaldiak eskuaraz antolatu ditu Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuak 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako. Apuntatzeko epea maiatzaren 31tik ekainaren 7ra zabalik dago, 012 telefonoaren bidez.

Uztailaren 17tik 28ra Erratzun izanen da jostaldia eta uztailaren 31tik abuztuaren 11ra Elizondon. Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehenastuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen errolatutakoek izanen dute.

Baztanen errolatutakoek txandako 70 euro ordaindu beharko dute, 55 euro familia ugaria bada edo txandan



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondo Eskola Publikoa bertako ekoizleen produktuekin bat

Elizondo Eskola Publikoa, bertako produktuen aldeko sentsibilizazio kanpainaren barnean, *Zer jan, halako Baztan*, ikasle, irakasle eta familientzako jardunaldi-astea burutu du, bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko, ekonomia eta ingurugiro iraunkortasunaren alde. Maiatzaren 15etik 19ra bitarteko astean egin dituzte ekintzak, horien artean, ikasleendako gosari osasungarriak bertako jakiekin, gaztanbera eta taloen tailerrak, bizkotxo lehiaketa edo familientzako formazio saioa: *Zer egin dezaket nik nire seme-alabaren ohitura osasungarriak garatzeko*, Irigoien Jangela Osasungarriaren Rocío Martín-aren eskutik, eta berendu-tailerra ikasleendako. Eskolak eta Eskolako jantokia kudeatzen duen enpresak (Irigoien Jangela Osasungarria) ekonomia iraunkortasunaren helburua beti presente izaten dute, eta jantokiko menuetan bertako produktuen presentzia bermatzeko lan egiten dute. Elizondo Ikastetxe Publikoak eskerarrak eman nahi dizkie, bai Irigoien Jangela Osasungarria enpresari, baita bertako ekoizleak diren Anizko Jauregia Gaztandegia-ri eta Irurritako Irular Mermelada Egileak-eri ere, emandako laguntzarengatik.

anaia-arreba bat baino gehiago badira. Aste bakarra aukeratzekotan,

35 euro ordaindu beharko dira. Baztanen ez errolatutakoek 110 eu-

ro ordaindu beharko dute txandako (55 euro aste bakarra).

FLASH

Jose Luis Torralbaren margo erakusketa

Jose Luis Torralbaren margo erakusketa zabalik egonen da Arizkunenean ekainaren 2tik 17ra. Astegunetz 18:00etatik 20:30era eta asteburuetan 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era ikusteko aukera izanen da.

Antxitoneako finalak jokoan larunbatean

Ekainaren 3an, larunbat goizean, jokatu dituzte Antxitonea trinketeko pala txapelketako finalak. Bigarren mailako finalean Goñi eta Urrutia, Bidegain eta Sansiñenaren kontra ariko dira eta lehen mailakoan, berriz, Etxenike eta Baylon, Huarte eta Iñarrearren kontra. Lehen mailan 11 bikote eta bigarrenen 28 aritu dira.

Inhaladore erabiltze eta bizkar tailerrak

Inhaladore erabiltze tailerra antolatu du Elizondoko Osasun zentroak ekainaren 7an, 10:00etatik 12:00etara eta bizkar tailerra ekainaren 14an, 11:00etatik 13:00etara. Batean zein bertzean izena emateko 948 581833 telefonora deitu behar da.

Kultur ondarea Baztanen

Nafarroako Unibertsitateko Nafarroako Ondarearen Katedrak antolatuta *Baztan bailarako kultur ondare* asolasaldia eskainiko dute ekainaren 2an, ortzirean Irurritako Jauregian.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesak

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

GIZARTEA → KONSUMITZAILEEN ARRENKURAK

Gas naturalaren inguruko kexak bildu ditu Irache elkarteak

Kontsumitzaile elkarte gas-hornidura enpresako arduradunekin bildu da soluzioa bilatzeko

TTIPI-TTAPA

Baztango gas natural zerbitzuaren inguruko hainbat kontsulta,

kexa eta erreklamazio jaso ditu azken asteetan Irache Kontsumitzaile Elkarteak. Gan den urteko azaroan, Baztango etxebizitza anitzetan erabiltzen ziren eta Repsol-i erosi zizkion propano instalazioak moldatzen hasi zen Gas Navarra, gas natural zerbitzura egokitzeko asmoz. Baina, itxura batean, lanak ez zituen behar bezala burutu.

Gehien aipatzen den arrenkuretako bat, ener-

gia aldaketa kontsumitzaileek eman beharreko onarpenarik gabe egin dutela da.

Bertze arazoetako bat fakturazioa da. Kasu batzuetan, Repsolen instalazioak erosiz geroztik, hilabeteak eman dituzte kobratu gabe eta orain, bapatean, 470 eurora ailegatu diren fakturak jaso dituzte bezeroek.

Gas Navarrak, bere aldetik, adierazi duenez, «konpainiak harreman



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Ernesto Prat-en 'Telleria, eta gero zer?'

Donostian lehenik eta Lekarozen gero aurkeztu du Ernesto Prat Urzainquik bere hirugarren eleberria: *Telleria, eta gero zer?*



Ba al zenekien

Ekainaren 9tik 11ra Aroztegiako Komantxeak plataformak deituta kanpaldia egingen dutela Elizondoko plazan Aroztegiako proiektuaren kontra.

estua eta etengabea dauka Irache Kontsumitzaile elkartearekin azken hamarkadetan eta kexa horiek lehenbailehen helaraztea espero dugu, kasu bako-

tza aztertu eta bezeroei zerbitzurik onena bermatzeko neurriak hartzeko». Bezeroendako doako arreta telefonora (900 100252) deitzea ere eskatu dute.

Erakutsi eta probestu aukerak!

BAZTAN TTIPI TXARTELA

<p>ALMACO BAZTAN IGANTIA</p> <p>%5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan</p> <p>T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>	<p>ARGIBEL PTIKA</p> <p>ESKAINTZA Betaurreko graduatu pare bat eroslerakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan</p> <p>Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	<p>Beatriz</p> <p>%5 DESKONTUA Kosmetika eta osagarrietan %5 DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduetan</p> <p>Santiago, 53 ELIZONDO T. 948 58 02 83</p>	<p>BIOK BAT TAILERRAK</p> <p>%10 DESKONTUA Baterietan, olio aldaketa eta frenoetan</p> <p>Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>	
<p>FOTOMENA</p> <p>%10 DESKONTUA kopia digitaletan</p> <p>Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p>E</p> <p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>	<p>Giltxaurdi Udal Kiral Instalazioa</p> <p>%5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan</p> <p>Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>	<p>Gureaut TAILERRAK</p> <p>%10 DESKONTUA baterietan</p> <p>Datuegibela, 10 ELIZONDO T. 948 58 02 25</p>	<p>IPINGI</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Santiago, 130 ELIZONDO T. 948 58 09 39</p>
<p>nafarpres liburutegia</p> <p>%10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik</p> <p>Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p>POSADA ELBETE</p> <p>%10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari</p> <p>Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19</p>	<p>SANSIÑENA CITYNER</p> <p>%5 DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p>Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA eskeletan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>Zentru berria Homeopatia, Kiromasajea, Polaritatea, Dietak ...</p> <p>%10 DESKONTUA kontsulta-terapian</p> <p>Santiago, 58 ELIZONDO</p>

BAZTAN

BESTAK → EKAINAREN 14TIK 18RA

Almandozko Bestaberri bestak ekitaldi bereziekin datoz

Pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dira egun handian

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Bestaberri egunaren inguruan besta egitarau zabalatu dute Almandozkoen. Egun handian, mezaz gain, pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dituzte eta hondar egunean, guztia borobilduz herri kirolak eta magraren zozketa.

ASTEAZKENA, EKAINAK 14 (BEZPERA)

- 12:00 Txupinazoa.
- 21:00 Baztan Zopak, Andoni Mitxelenak alaituak.

ORTZEGUNA, EKAINAK 15 HERRIAREN EGUNA

- 08:00 Aurorak.
- 12:00 Meza nagusia (Ondoren luntxa frontoian).
- 17:00 Pilota partidak



UTZITAKO ARGAZKIA

50 urte beteko ditu aurten Bestaberri egunean ateratzen den aurora taldeak. Argazkia duela hiru bat urtekoa da. Beheitan, almandoztarrak inauteriak ospatzen 1973an.

- herriko gazteen artean.
- 21:00 Patata Tortilla lehiaketa.

ORTZIRALEA, EKAINAK 16 HAURREN EGUNA

- 11:00 Haurrentzat ginkana.
- 16:00 Haurrentzat puzgarriak arratsalde osoan.
- 16:30 Mus Txapelketa.
- 18:00 Haurrentzat Txokolatada.
- 21:30 Herri afaria.
- 00:30 Dantzaldia EZINKE taldearekin.



- 06:00 Zingarjatea gau txoriendako.

LARUNBATA, EKAINAK 17

- 11:00 Mus txapelketa finalerdiak eta finala.
- 14:00 Zikiro Jatea.
- 16:00 Dantzaldia SALABERRIren eskutik.

- 21:00 Herriko gazteen afaria.
- 00:00 Dantzaldia SALABERRIrekin.

IGANDEA, EKAINAK 18

- 12:00 Meza nagusia eta jaunartzeak.
- 17:00 Herri Kirolak.
- 20:00 Gaixoa ni.

EURO BATEAN

Baztandarren Biltzarreko tonbolako boletoak salgai

TTIPI-TTAPA

Hurbiltzen ari da Baztandarren Biltzarra besta, eta urtero gisa elkarteak boletoak atera ditu salgai. Inguruko komertzioek emandako sariak eta elkarrekin berak erositako sariak tokatzen ahal dira. Besta egunean eginen den diru-zozketan parte hartzeko zenbakiak ere atera dituzte.

Ohitura segituz, boletoak euro 1 ean daukete salgai. Sariak, elkartearen egoitzan eskuratu ahalgo dira; ekainaren 3tik Baztandarren Biltzarra arte, larunbatero, 11:00etatik 13:00etara.

Kontuan hartu beharreko inprenta akats batzuk ere izan dira: Mari Carmen arropa dendak eta Migelene eraikuntzak emandako sariak behar baino gehiagotan inprimatu dira. Beraz, Mari Carmen arropa dendako opari sorpresa duenak, mobilendako brazaletea izanzen du opari, eta aldrebes, mobileko brazaletea duenak, Mari Carmeneko opari sorpresa. Eta gauza bera gertatzen da Migelene Eraikuntzako sariarekin; inprentak Migelene eraikuntza eta mendiko/ hondartzako materiala nahasi ditu.

Boleto batzuetan 2016 data ageri da, baina ez da deus gertatzen. Boletoen kolorea aldatu dute eta hortaz, 2016 paratu arren, kontutan hartu urdin kolorekoak direla aurtengoak, data dena dela ere.

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generali.es

ERRENTA AITORPENEAN DESGRABATU NAHI?

ORAIN desgrabatzeko:
Prebisio Plana %3,25eko interesa
Pentsio Plana Burtsaren arabera

ETORKIZUNEAN desgrabatzeko:
PIAS %2,25eko interesa
SIALP %2,25eko interesa

Traspasatu zure plana eta %3raino emanen dizugu!

Edo kontratatu orain eta prestatu zure etorkizuna!



ZUGARRAMURDI

GERTAERAK → MAIATZAREN 17AN

Lapiztegia karrikan ibili dira oraingoan ohoinak

Diruaz gain,
bertze gisako
materiala ere
eraman dute

li zuten pata-kabra Tinta Bentan ahantzi zuten. Ea zerbaitetarako balio duen ...

Josebiñe eta Koro

Maiatzaren 17ko gauean ohoinak gustura eta trankil aritu ziren lanean Lapiztegia karrikan. Lehenbiziko ilea-paindegian eta estetizienean sartu ziren, eta ondotik Tinta Bentan. Harrapatu zuten diruaz gainera, bertze gisako tresneria eta materialak ere eraman zituzten.

Harriztekoa da ez direla batere gordeka aritzen halako balentriak egiteko: azkeneko hau karreteraren bazter-bazterean izan da, eta aitzinekoa (duela hila-bete gutti), plaza erdi-erdian.

Aldi honetan arrastoak utzi omen dituzte: atea edekitzeko erabi-

Zugarramurdiarrak Herri Urrats laguntzen

Azkeneko 33 urteetan bezala, aurten ere hor aritu dire zugarramurdiarrak Herri Urrats laguntzen, zikiro jatea prestatzen.

Aipatzekoa da lan hau ez dela egunean ikusten dena bakarrik (haragia erretzea), bezperan ere lan polita izaten baita: bildotsak puskatzea eta erretzeko maneran egoteko paratzea.

Aurten ere 1.000 kilo haragi erre dituzte, baina desberdintasun bat izan da: orain arte bokadiilotan bakarrik saltzen zen, eta aurten mahaietan ere eskaini da.



ARGAZKIA: KORO ETA JOSEBINE

Argazki honetan Miguel Mari, Beñat eta Martin Joxe ageri dira bakarrik, baina lan honen ondotik aise jende gehiago badago.

MUSEOAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA

Sorginen Etxea estatuko museo bitxiaren artean aukeratu du *Hundredrooms* atariak

TTIPI-TTAPA

Museoen Nazioarteko Eguna ospatu zen maiatzaren 18an. Aitzaki horrekin, estatuko museo bitxiaren zerrenda egin zuen *Hundredrooms* atari turistikoak eta bederlatzi berezienen artean ageri da Zugarramurdiko Sorginen Museoa.

Zugarramurdiko Sorginen Museorekin batera, Lanzaroteko Museo Atlantikoa (Kanariar Uharteak), Astorgako Txokolaterearen Museoa (Leon), Castell de Guadalest herriko Museo de Saleros y Pimenteros (Alakant), Munduko Miniaturen Museoa (Mijas, Malaga), Orinalaren Museoa



(Ciudad Rodrigo, Salamanka), Beruneko Soldadutxoaren Museoa (L'Iber, Valentzia), Perez Sagutxoaren Etxe-Museoa (Madril) eta Lurrinaren Museoa (Bartzelona) daude.

Gan den urtean 32.000 bisitari izan zituen Zugarramurdiko Sorginen Museoa.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA	Dantxarinea 31712 URDAX	Ibardin 31780 BERA	Luzaide 31660 LUZAIDE
-------------------------------------	----------------------------	-----------------------	--------------------------



tabac · maroquinerie · restaurant · cadeaux · Landibar

URDAZUBI

GIZARTEA → MAIATZAREN 21EAN ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN

Mugaz bertze aldeko tabako-dendak haserre Dantxarineko kompetentziarekin

Frantzian tabako kartoi bakoitzak 65 euro balio ditu banaz bertze eta alde honetan 120 euroren truke 5 eros daitezke

Iñigo IMAZ

Maiatzaren 21ean, Ainhoatik Urdazubira pasatzeko erabiltzen den biribilgunean, hots, Dantxarinearara sartzeko errotondan frantziar estatuko estanko-denda jabeek elkarretaratze zalapartatsua egin zuten. 200 lagun inguru elkartu ziren Frantziako estatuek pairatzen duten kompetentzia desleiala salatzen. Protestan, Frantziak Europako bertze herrialdeekin



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Mugaz bertze aldeko takako-dendek bere protesta egin zuten Dantxarinearantz.

dituen mugetan, eta azken bi hilabeetan eginen ari diren kanpainari jarraipena eman zioten.

Dantxarinerantz zihozten bezeroei sarre-oztopatzen saiatu ziren ordu eta erdiz, petardoak eta sirena hotsak lagunduta. Espainiako mugetara hurbildu aitzin, Luxenburgoko

Andorra eta Suitzako mugetan arituak dira Frantziako estanko-jabeak. Manifestarien artean, Iparraldeko tabako-dendariak eta Bretainia, Limusin, Frantziako iparraldea eta Okzitaniako hainbat lurraldetatik etorritakoak nagusitu ziren.

Dantxarineko bentetan tabakoak dituen pre-

zioak salatzen bildu zirenen, frantziar bezeroei beren arazoa azaltzen saiatu ziren. Haien hitzetan, Espainiako bentetan tabako kartoiak Frantziakoak baino askoz merkeago saltzen dira. Frantzian kartoi bakoitzak, banaz bertze-ko 65 euroko prezioa duen bitartean, mugaren bertze aldean 120

euroren truke 5 kartu-
txo erosten ahal dira.

Maiatzaren 27an Estrasbourg-en elkarretaratzea eginen dute. Gerard Vidal, mugako estanko-jabeen elkarte-ko lehendakariaren hitzetan, ez du zentzurik Frantzian tabakoa hain garesti jartzeak, tabako neutroarekin batera, us-tez osasunaren aldeko neurriak omen direlarik, mugaren bertze aldean askoz merkeago, eta marka ezberdinetako tabakoa erosten ahal denean. Haien aldarrikapenen artean, aipagarriak bi dira: alde batetik mugaren bi aldeetako prezioak berdintzeko neurriak hartzea, eta bertzetik, Frantziatik kanpo sartzen den tabako kopurua legeak ezartzen dituen 4 kartoietara mugatzen dela ziurtatzeko polizia kontrolak ugaritzea.

KIROLA → MAIATZAREN 21EAN

Herriko zortzi gizonezko Kontrabandisten karreran

Mikel Ameztoi izan zen horien artean bizkorrena

Iñigo IMAZ

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu zen maiatzaren 21ean, Urdazubiko

Gazteek eta Nafarroako Motoziklismo Federazioak antolatutako.

70 korrikalari izan ziren eta horietatik 8 urdazubiarrak, denak gizonezkoak.

Valerie Larrabururen hitzetan, antolatzaileek balorazio positiboa eginen dute. Urtetik urtera parte-hartzaile kopurua handia baita, nahiz eta

aurten, 2016ko edizioarekin alderatuz korrikalari kopuruak behera egin duen. Aurreko urtean 80 pertsona hurbildu ziren, inoiz izan den korrikalari kopuru handiena.

Urdazubiaren artean, sailkapena honela geratu zen: Mikel Ameztoi (1:29:52), Aitor Rementegi (1:34:03) eta,



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Herriko korrikalarien podiuma: Ameztoi lehena, Rementegi bigarrena eta Olló eta Mujika hirugarrenak.

hirugarren postuan, ten Jon Olló eta Mikel denbora bera egin zuten Mujika (1:36:05).

GIZARTEA → MAIATZAREN 21EAN

INRAko atea ideki dituzte 40. urtemugan

Institutuaren lanen hobeki ezagutzerat jende andana hurbildu da


Pierre BASTRES

Maiatzaren 21ean Senpereko INRA-k (Agrogintzaren ikerkuntza zentro publikoa) bere atea ideki dizkie ikusleei, 40. urtebetetzea ospatzeko gisan. INRA aritzen da nazio mailan, eta agrogintzari lotutako eremu guzietan ikerketak eramaki ditu. Senperekoan, bi sail badituzte aztergai:

alde batetik arrain hazkuntza eta bazkakuntza (NuMÉA unitateak kudeatzen duena) eta bertetik arrain migratzaileen jokabidea (ECOBIO unitatearena). Egiten dituzten azterlanak hain xorrotzak eta aintzintatuak dira non mundu osoan ezaguna baita Senpereko zentroa: Herralde aintzekin harremanetan dira, hala nola USA, Europa, Txina, India, Txile, Norvegia etab.. Ez da ahan-tzi behar Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiarekin ere aspaldi dituzte-lahartu-emanonak, izan dadin elkarrekiko lana-

ri esker, edo ikasleen trukaketen eta egonaldien bitartez. Adibidez 2000. hamarkadan Bidasoko presen ondorioak aztertu izan ditu Senpereko ekipa batek, eta bi urtez geroztik Lesakako Lorea bere Post-Doktorea hemen ari da bururatzen.

Bertako 40 ikertzaitako bat da Iban Seilliez, eta ohartarazten du: «Pizsikulturrendako hazkurrien hobekitzea arraz inportantea da gerorakotz, kalitatezko arraina eta osasuntsua jendeek jan dezaten». Azpimarratzen du, INRAk argi eta garbi



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Institutuak egiten duen lana ezagutzerat eman zuten.

ikerlanak ere finkatzen dituela «garapen iraunkorra bermatzeko asmoz». Sylviane Allaux diputatuaren ustez «Senpereko zentroa behar da goraiatu eta

ezagutarazi», baina Ibanek urriki du «ikerkuntza publikoari geroz eta ahalik guttiago emana zaiola, eta hori aski fite hilkorra daikela gure lanarentzat».

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 14AN OSPATU ZEN HERRI URRATS

Funtsezko animazioak eta berrikuntzak preziatu dituzte milaka lagunek

Antolatzaileek aurtengo edizioa arrakastatsu ikusten dute, zenbaki zehatzak ez baldin badituzte ere oraino

Pierre BASTRES

Maiatzaren 14an ospatu izan da 34. aldikotz Iparraldeko ikas-

tole besta. Urte oroz bezala, Euskal Herriko xoko guzietako lagunak profitatu ahal izan dira zernahi animazioz, musikaz, kontzertuz, zeru urdin eta eguzki eder baten pean. Emile Neguelua antolatzailearen erranetan «ene iduriko jende gehiago izan dugu aurten, gan den urtean baino. Ageri zen kontzertuetan bereziki. Ken Zazpi, Zea Mays eta Huntza taldeek fama ona dute, eta gazteak mugitu dira ikusterrat». Herri Urrats eder

bat ukaiteko osagarriak hor ziren: aro ederra eta egiteko ausarkian. Halarik ere, hurbilago-tik behatuz, berrikuntza zombaitetaz ohartzen da. Hala nola xoko herrikoia bat sortu dute antolatzaileek, zeinean jendea biltzen ahal zen kantuz hartzeko, askaria edo zikiro baten inguruan. «Gazteak betiz geroztik dabilta gustura usaiako kontzertuetan, hemen aldiz kan-tu baketsuago edo lasaiago bat nahi genuen, adin guzietako jen-



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Giro paregabea izan da aurten ere Herri Urratsen.

deentzat, solastatzeko eta kantatzeko. Xoko huntarat etorri direnek handizki preziatu dute. Emilek argitzen du, gehituz «zenbat jende ba-

zen ez dakigu oraino, zenbakiak hiru asteburuan errezibituko dituguan, agian zenbaki horiek erakutsiko dute gu-re usteak egiak zirela!».

SARA

KULTURA → EKAINAREN 2AN

Zazpiak Bat dantza taldeko haurrek ikusgarria eskainiko dute

Ortzirale arratseko 7etan hasiko da emanaldia plazan, denei irekia eta urririk

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala, uda aitzin Zazpiak bat dantza taldeko haurrek urtean zehar ikasitako dantzen ikusgarri bat

emanen dute plazan. Ikusgarria ekainaren 2an izanen da, ortziralearatseko 7 etan, denei irekia eta urririk da.

Es kubaloia

Maiatzaren 20an, mutikoeke finalerdietako itzultzerako matxa jokatu dute Garlin-en, 20-18 galdu dute baina hala ere finalerako sailkatu dira.

Ekainaren 10ean, Sarako Urtxintxak esku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Donibane Lohizuneko Goraki abesbatzaren kantaldia

Ekainaren 15ean, ostegun batez, Donibane Lohizuneko Goraki abesbatza mixtoak kantaldi bat emanen du elizan gaueko 9:30ean. Abesbatza hau 1975ean osatu da eta gaur egun 40 bat kantari kondatzen ditu eta euskal kantu herrikoiak berriz hartzen ditu. Sartzea 10 eurotan izanen da.

baloi elkarteak norgehiagoka bat antolatu du kiroldegian. Zazpi kideko nesken ekipak edo mistoak egiten ahal dira. Izena emateko 06 31 21 57 92 zenbakira deitu behar da. Egun bukaeran, jokalaria eta begiraleak baso eta talo edo muskuiluen in-

guruan egoteko aukera ukanen dute.

Ikastolako besta

Olhain ikastolak antolatzen dituen hitzorduetan gertakari hau sahiestezina bilakatu da. Mendekoste bezpera guziz bezala, ikastolak bere besta antolatu du,

kiroldegia sagarnotegi bilakaraziz. Ekainaren 4an, beraz, eguerditik goiti sagarno kupelak idekiko dira, ondotik bazkari alaitu bat antotzat joko puzgarriak izanen dira. Tokiak erreserbatzeko ikastolarekin harremanetan sartu behar da.

Gure gau ilunak argituko dituen izarra buruari bueltaka dabilen, irriaren oihartzunaren islado. zu gure bihotzean beti altxatuko dugun Jesus Mari, otta eta ataxi maitea izanen zara.

Jesus Mari ARGAIN LARREGI
Narbarten hil zen, 2016ko ekainaren 6an
I.URTEURRENA

Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

EZKONTZAK

Mikel Telletxea Santesteban eta **Amaia Piñuela Redin**, Zubieta eta Iruñekoa, maiatzaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Kattalin Iparragirre Oteiza, Elizondokoa, apirilaren 19an.
Liam Alava De Carlos, Lesakakoa, maiatzaren 4an.
Lier Deskarga Legasa, Lesakakoa, maiatzaren 18an.
Luka André Aspirot, Sarakoa, maiatzaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortziritan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Maria Angeles Iturriria Otondo, Elizondokoa, maiatzaren 10ean, 90 urte.
Manuela Daguerre Martinez, Berakoa, maiatzaren 15ean, 93 urte.
Lino Etxegarai Irtzoki, Berakoa, maiatzaren 23an, 71 urte.
Veronique Etxeberri, Sarakoa, maiatzaren 7an, 75 urte
Etienne Bernez Vignolle, Sarakoa, maiatzaren 13an, 90 urte.



Mª Junkal BENGOETXEA AIZPIOLEA

Lesakan hil zen, 2017ko maiatzaren 1ean,
72 urte zituela

*Izarrik ederrena hor goiko zeruan
Zu izanen zarela guri dizdiran*

**KONTXITA, ANGEL, DOLORES, EUSEBIO, BEGONA,
JUANITO, NAROA, JOSE, UXUE, URKO, IDOIA,
ENEKO, NAHIA.**

Egun gogor hauetan gure ondoan egon zareten guztiei
ESKERRIK ASKO



«Baserritarren seme,
malda handi ta trikitán
ibilia, zirikatzaile,
maixu ardietan,
izpegiko mendietan
ibilia birritan,
nahiz eta triste utzi
gaituzun
gure baserrian,
gero arte aita biziko zara
gure gogo ta irritan.

ZURE FAMILIA

Leon ETXEBERRIA OTONDO
Erratzun, 2017ko apirilaren 8an

«Beti izango zara nire zeruko izarrik disdiratsuená
itxaron nazazu inork bananduko ez gaituen txoko batean»

ASKO MAITE ZAITUT
Jaione Mindegia



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN
Etxalar, 2016/06/13
I.URTEURRENA

MENDI LASTERKETAK → MAIATZAREN 20AN

200 korrikalarik bukatu dute Goizutrail lasterketa

Jon Alberdi eta Aitziber Ibarbia nagusitu ziren ibilbide luzean

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 20an burutu zen Goizutrail mendiko lasterketaren laugarren edizioa. Azken bi edizioetan bezala, bi ibilbide izan zituzten aukerara, 25 kilometrokoa eta 10 kilometrokoa. Denera 200 korrikalarik bukatu zituzten lasterketak, 107k luzeena eta 93k laburrena. Ibilbide luzeena egiten bizkorrenak Zestoako Jon Al-

berdi eta Zizurkilgo Aitziber Ibarbia izan ziren eta laburrena egiten Arrasateko Iñigo Alzola eta Hernaniko Ana Rodriguez. Podium gehienak Gipuzkoako korrikalariek osatu zituzten.

Izan ere, Jon Alberdi zestoarrak 2 ordu 17 minutu eta 8 segundo behar izan zituen ibilbide luzea burutzeko; Berastegiko Iban Agirrezabala izan zen bigarren (2:17:25) eta Zumaiako Jokin Guijarro hirugarren (2:20:27). Eskualdeko korrikalariei dagokienez, Hodei Lujanbio goizuetarra izan zen bizkorrena eta hama-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Ibilbide luzean lehenbiziko goizuetarra, Hodei Lujanbio, aldapan gora.

laugarren izan zen sailkapen orokorrean (2:33:16). Aritz Alunda arraioztarra hamaseigarren izan zen (2:35:46) eta Iñaki Zabaleta leizarra hogeita laugarren (2:41:39).

Emakumezkoetan, Zizurkilgo Aitziber Ibarbiak 2 ordu, 43 minutu eta 39 segundo behar izan zituen garaipena lortzeko, Getxoko Amaia Amantegi bigarren izan zen 13 segun-

dora (2:43:52) eta Sarah Ugarte donostiarrak hirugarren (2:47:54).

Ibilbide laburrean, Iñigo Alzolak 51 minutu eta 56 segundo behar izan zituen, Iñigo Gurrutxaga donostiarrak 52 minutu eta 28 segundo eta Egoitz Izagirre oartzuarrak 52 minutu eta 32 segundo. Eskualdeko korrikalariei dagokienez, Manttaltaldeko Ibai Berregi iturrendarra bosgarren izan

zen (55:44) eta Xabier Apezetxea goizuetarra hemezortzigarren (1:00:47).

Emakumezkoetan, Hernaniko Ana Rodriguez gailendu zen (1:09:43), Arrasateko Ane Beraza (1:10:29) eta Azpeitiko Eneritz Aramendiren (1:10:54) aurretik. Ane Zinkunegi goizuetarra izan zen eskualdeko emakume bakarra ibilbide laburrean (1:25:27).

LASTERKETAK → URDAZUBIN MAIATZAREN 21EAN

Zago eta Olazabal garaile Kontrabandisten lasterketan

70 korrikalarik parte hartu zuten eta 68k bukatu zuten

Iñigo IMAZ

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketaren zazpigarren edizioa

jokatu zen maiatzaren 21ean, Urdazubiko Gazteek eta Nafarroako Motoziklismo Federazioak antolatutako lasterketan 70 pertsona parte hartu zuten eta 68k lortu zuten 15,8 kilometroko ibilbidea burutzea, horietatik zortzi emakumeak.



ARGAZKIAK: IÑIGO IMAZ

Kontrabandisten lasterketako gizonen eta emakumezkoen podiumak, Urdazubin.

Gizonen artean, Didier Zago (1:06:38), Iñaki Mihura (1:10:20) eta Mikael Etxeberri (1:10:57) izan ziren lehenak eta trofeo eta Kalkuren produktu sortaz

gain, hurrenez hurren 250, 150 eta 50 euroko sari bana eman zieten. Emakumezkoek sari kopuru berbera jaso zuten, baina Kaiku produktuen ordez Martiko-

ren produktu sorta jaso zuten. Sailkaturiko lehen hirurak Alizia Olazabal (1:24:38), Pantxika Gaikotxea (1:43:47) eta Amaia Saint Martin (1:46:51) izan ziren.

SOKATIRA → NAFARROAKO 4X4 TXAPELKETA

Beti Gazteko mutilen sokatira taldea txapeldun

Emakumeak hirugarren izan ziren pisu astunenean

egin zuten bezalaxe, maiatzaren 13an Antsoainen jokaturako 320 kiloko bigarren jardunaldian ere tiraldi guzirik irabazi zituzten eta finalean Berriozar A taldeari nagusitu zitaion.

Talde beteteranoa jarri zuen goma gainean Beti Gaztek: Beñardo lantzi, Alejo Sarobe, Joxe Angel Mitxelena eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Mikel

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako lehen txapela nagusitasunez jantzi zuen Lesakako Beti Gazteko gizonen taldeak. Lesakan maiatzaren 6an



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko mutilak txapeldun eta neskek hirugarren, pisu astunenean.

Apeztegia entrenatzailea eta Iñigo Altzugarai laguntzaile zutela.

Emakumezkoetan, 255 kiloko kategorian, Beti Gazteko neskek hirugarren izan ziren. Hauen talde berria eta gaztea dute, lehen aldiz lehen aritu diren neskek

osatu: Aitziber Goienetxe, Oiartzungo Udane Arbelaitz, Aurtizko Oihana Mindegia eta Ainhoa Ubiria izan dira tiralariak. Entrenatzailea Karmele Pikabea izan zuten eta laguntzailea Kristiñe Txoperena. Txantrea izan zen txapeldun eta Berriozar txapeldun orde.

peldun eta Berriozar txapeldun orde.

Orain, mutilek nahiz neskek pisu arinagoko txapelketa jokatu dute (300 eta 235 kilo). Maiatzaren 20an eta 27an tiratu behar zuten, beraz, txapelak banatuak izanen dira honezkerok.

ARETO FUTBOLA → GIPIZKOAKO 3. MAILAN

Leitzako Aurrera taldea ligako txapeldun suertatu da

Datorren urtean bigarren mailan aritzeko gogotsu daude

penalti jaurtiketetan ibili ziren leitzarrak, txapelketa irabazteko.

Meritu handiko lortuena da, aurten hasiak baitira *futbol ttikian* eta taldekide gehienak zelai handiko futboletik datoz. Jubenil eta senior mailan futbol handian arituak, bai, baina infantil eta kadete mailan, areto futboleko aritu ziren jokalariek osatu dute taldea: «Ligako hasierako partiduetan buhurik gabe ibili ginen eta

TTIPI-TTAPA

Areto-futboleko, Gipuzkoako hirugarren mailako txapeldun suertatu da Leitzako Aurrera areto-futbol taldea. Goierriren kontrako finalean arauzko denboran banako berdinketarekin bukatu eta gero,



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurrera areto-futboleko taldeak 3. mailako liga irabazi du Gipuzkoan.

nabaria zen futbol handitik egin genuela salto. Hala ere, pixkanaka areto futboleko jokoa berreskuratzen joan gara eta emaitza ezin hobea lortu dugu». Datorren urtean, bigarren mailan aurkari gogorragoak espero dituzte baina helburu nagusia, «kirola eginez ongi pasatzea izanen da».

AURRERA AF: GIPIZKOAKO 3. MAILA

Antton URKIOLA GORDOVIL	LEITZA
Unai TIJERO ZABALETA	LEITZA
Luis LASARTE ARRUIZA	LEITZA
Inaxio PERURENA AIZKORBE	LEITZA
Kevin VERA SAIZAR	LEITZA
Miel OLANO ZABALETA	LEITZA
Iñigo ALDUNTZIN GARCIA	LEITZA
Jon Denis KALONJE AZPIROZ	LEITZA
Beñat ZABALETA ALDUNTZIN	LEITZA
Andoni ZABALETA MARIEZKURENA	LEITZA
Eneko ZABALETA RENTERIA	LEITZA
Delegatua: Jon ZABALETA RENTERIA	LEITZA

ekainak 1 - 15

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Bertsokak



SARA | 2017.06.10

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala Sarako Trinketean

Herrialde bakoitzetik bi bertsolari ariko dira kantuan, aitzinetik jokatu diren herrialdeetako finaletatik sailkatutakoak. Goizez egingen dute finala, eta bazkaldu ondotik, arratsaldean ere emanaldia izanen da.

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2017.06.02-03

Denboraldia borobiltzeko besta antolatu du Erreka Kirol Elkarteak

Besta honen XI. edizioa izanen da eta bi egunez, besta eta kirola uztartuz hainbat ekitaldi antolatu dituzte: eskubaloia, judoa eta dantza saioak, puzgarriak, mus txapelketa, herri afaria eta dantzaldia.

Ospakizunak



ETXALAR | 2017.06.03-04

XXV. aldiz Gasna eta Artisau Feria antolatu dute Etxalarren

Artisau lanen erakusketa eta salmenta, gasna lehiaketa, herriko trikitilarien saioa, kantu bazkaria eta erakusketak izanen dira, bertzeak bertze, ekainaren 4an eta bezperan, Etxalarko I. ardi zakur lehiaketa egingen

Hitzaldiak

IRURITA

Baztango ondare kulturala hizpide

Ekainaren 2an Jauregian.

LEITZA

Sexologoek idatzitako errelatu erotikoez

Ekainaren 8an Itxaso Torregrosa, Irune Iturbide eta Goreti Etxeparerekin, liburu aurkezpena, 19:00etan Jubin.

BERA

Goienarren hitzaldia

Ekainaren 1ean argindararren fakturak ulertu eta aurrezteko tailerra 20:00etan Katakun.

Fernando Mikelarenaren liburu aurkezpena

Ekainaren 8an *Muertes Oscuras, Contrabandistas, redes de evasión y asesinatos políticos en el país del Bidasoa 1936*. 19:00etan Beralandetan (Gaztelaniaz).

Tailerrak

LEITZA

'Nola egin Ogasunarekin egin beharreko tramiteak online'

Ekainaren 12an udaletxean, 10:00-12:00. Izen-ematea: mendialdea@cederna.es edo 617 609328.

Autodefentsa feminista

Ekainaren 16an eta 17an dohainik.

GOIZUETA

'Solstiziorako prestatu'

Ekainaren 12an, 17an eta 19an udaletxeko ganbaran. Izen-ematea: 667 314180.

Haurrentzako yoga

Ekainaren 1ean, 8an eta 15ean udaletxeko ganbaran. Izen-ematea: 667 314180.

Erakusketak

BERA

Argazki rallyaren erakusketa

Ekainaren 1ean eta 2an

Kultur Etxean, 17:00-19:00.

ELIZONDO

Juan Luis Torralbaren margoak Arizkunenean

Ekainaren 2tik 17ra.

LESAKA

Artea Oinez

Ekainaren 4ra arte Harriondoan, Nafarroa Oinez barne.

Antzerkiak

LEITZA

'Telesforo ez da Bogart'

Ekainaren 17an 19:00etan Zineman.

Dantzak

SARA

Euskal dantzak

Ekainaren 2an Zazpiak Bat taldea 19:00etan frontoian.

Kontzertuak

LEITZA

Anariren kontzertua

Ekainaren 2an 22:30ean Atekabeltzen.

GOIZUETA

Iruñeko eta Goizuetako abesbatzak

Ekainaren 3an Iruña eta Umore Ona Abesbatzak 19:45ean elizan.

PROPOSAMENA

ITUREN

Trinitate Eguna ospatuko dute ekainaren 11n

Jendetza bilduko da Mendaurko kaxkoan ekainaren 11n, Trinitate Eguna ospatzeko. Ituren eta inguruko herritar aunitzek dute kaxkora igotzeko ohitura egun honetan, eta hala izanen da aurtien ere. Are gehiago, eguraldiak laguntzen badu. Eguerditik aitzinera bestak herriz herri segituko du: Arantzan Senberroko bordan, Aurtitz eta Ituren enbalteetan hasieran eta herrian gero...



BERA

Isidoro Fagoaga gogoan antzerki-kontzertua

Ekainaren 9an *Isidororen bidaiak*, 22:00etan Herriko Etxeko plazan. Eguraldi txarrarekin, Altzateko frontoian.

SARA

Goraki abesbatza

Ekainaren 15ean 21:30ean elizan. Sartzea 10 eurotan.

Bertsoak

SARA

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala

Ekainaren 10ean trinketeetan. Egun osoko besta.

Filmak

ELIZONDO

'Emak bakia baita' filma

Ekainaren 9an 20:00etan Arizkunenean.

Ospakizunak

BERA

XXIII. Dantzari Ttiki Eguna

Ekainaren 3an.

Bortziritako Gure Esku Dago besta

Ekainaren 3an mosaiko erraldoia, bertso-poteoa eta kontzertua.

IGANTZI

Gure Esku Dagoren baitan

Ekainaren 3an toka txapelketa, triki-poteoa eta herri-bazkaria.

DONEZTEBE

XI. Errekaren Eguna

Ekainaren 2an eta 3an.

NARBARTE

Sagardoaren Eguna

Ekainaren 3an.

SARA

Olhain ikastolaren besta

Ekainaren 4an 12:00etatik aitzinera frontoian.

Nire aukera



Miren MITXELENA

Donezteben bizi den igantziarra

«Konpainia, maitasuna eta lana behar ditut zoriontsu izateko»

Beti zerbait egiten ari behar duen neska gaztea eta sozia-blea naiz» erranez aurkeztu du bere burua Mirenek. Igantzikoa sortzez, Donezteben osatua du kabia eta nongoa den galdetuta «han eta hemen, gustura» egoten dela erantzun du: «zainak hagitz barrenean dagozi, baina azalekoak ere nonahi aisa botatzen ditut!». Gainera, bere ustez, bi herrien artean «berdintasunak gehiago dira desberdintasunak baino. Herri giroa, kirolarekiko eta kulturarekiko zaletasuna...». Edozein moduz, bizitzako momentu desberdinak bizi izan ditu batean eta bertzean eta horrek badu eragina: «Igantzin haurtzarora eta gaztarora bizi izan nituen eta saltsa guztietan egoten nintzen. Donezteben, berriz, heldutasuna, amatasuna eta urte desertikoagoak deitzen direnak bizi ditut». Denbora librean mendian oinez ibiltzea atsegin du: «ikaragarri gustatzen zait egiten duen eguraldia edozein dela ere. Aukeran konpainian nahiago, baina bakarrik ere tarteka... ze gustura!».

«Zainak hagitz barrenean dagozi... baina azalekoak ere non-nahi aisa botatzen ditut! Gustura han eta hemen!»

Astebururako gustuko plana ere azaldu du: «goizean paseoa egin, etxekoekin aperitiboa hartzera atera eta familia osoarekin bazkaldu! Bi herriak hortarako aproposak dira!». Bidaiatzea ere «hagitz gustuko» du «erlaxatu, kultura eta toki berriak ezagutzeta... denetik pixka bat egiteko». Eta maleta barruan zer eramanen lukeen galdetuta zalantzarik egin gabe eman du erantzuna: «parasetamola eta tiritak! Eta erreserbako txupete bat ere bai!». Bisitatu dituen toki guztiek «xarma berexia dute baina Costa Rica aunitz gustatu zitzaidan! Berde-berdea da hau bezala!». Munduko edozein xoko ezagutu nahiko lukela ere aitortu digu nahiz eta orain «Galiziara familia guziarekin joan nintzateke eta Finisterrera bakarrik!». Urruti joan gabe, «Igantzi Apitu alde, Piedadeko auzoan barrena paseatuz eta Doneztebeko Axkin alde» atsegin ditu «han eman ditut nire paseorik erlaxagarrienak». Etorkizunaz ikuspegi baikorra du «polita aurreikusten dut, plan aunitzekin bai bakarrik, bai lagunekin eta bai familian!». Irribarrea ezpainetan dio «konpainia, maitasuna eta lana» behar dituela zoriontsu izateko eta halaxe, zoriontsu «familiakoak hazten ikusi nahiko nituzke, gauza txarrei alde ona bilatuz beti!».

Eskola publikoaren besta

Ekainaren 4an 18:00etatik aitzinera eskolan (euria eginenez gero, kiroldegian).

ETXALAR

XXV. Gasna eta Artisau Feria

Ekainaren 3an eta 4an.

LEITZA

IX. Sagardo Eguna

Ekainaren 10ean.

ARANTZA

Ternida Eguna

Ekainaren 11n Senberroko bordan bazkaria eta musika.

Galdeketa harira, egun osoko besta

Ekainaren 18an.

ITUREN

Trinitate Eguna

Ekainaren 11n bazkaria eta musika.

Bestak

BERROETA

Herriko bestak

Ekainaren 2tik 5era.

BERA

Altzateko bestak

Ekainaren 9tik 11ra.

ALMANDOZ

Herriko bestak

Ekainaren 14tik 18ra.

Azokak

BERA

Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua

Ekainaren 10ean Ricardo Baroja eskolan, 10:00-13:00.

Mendi-ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen irteerak

Ekainaren 4an Erratzutik Enekaitzera, 07:30ean abiatuta.

Ekainaren 11n Txindokira ateraldia.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORNOZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatu, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.


Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948451337 / 667 275013.

BERA. Ugazubia kaleko 2. zenbakian 79 m²ko pisua salgai: sukaldia, jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza, igogailua, margotu berria eta garajea barne. 185.000 euro. ☎607 437189.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BORTZIRIAK. Hizkuntz Eskolako irakasle batek logela behar du ekainean Beran edo inguruko herrietan. Ingelesez solasteko aukera debalde. ☎652 700311.

Borda edo baserria errentan hartu nahi dute **Bortzirietan, Malerrekan edo Baztanen.** ☎689 537474.

BERA. Baserria errentan hartu nahi da. Lan finkoa eta seriotasuna. ☎635 707731.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Mikel naiz Iruñeko gazte

euskalduna. Uztailean hiru astetarako **baserri bat** aurkitu nahiko nuke, **mantenuaren truke** baserriko lanetan lagundu eta **euskara hobetzeko.** ☎629 010034.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

ARANTZA. Larreta auzoan 419 m²ko lursail urbanizatua salgai. ☎617 239361.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertze langileak behar dira. ☎699 382673.

LESAKA. Frontoiko ostatua emakume bat behar da barran eta sukaldian lan egiteko. Esperientzia pixka batekin. ☎663 516107.

IRUÑEA. Biltegian la-

nean aritzeko langilea behar da, karga eta deskarga lanean eta goizaldean. Bidali curriculumak: saioakris@gmail.com-era.

IRUÑEA. Goizaldean produktuen harreran, fakturazioan eta eskararak egiten aritzeko langilea behar da. Bidali curriculumak: saioakris@gmail.com-era.

IGANTZI. La Villa jate-txean kamarera estra behar dugu asteburu batzuk, erreserba haundiak eta jai egunetarako. ☎634 592788.

ETXALAR. Herriko Ostatua zerbitzaria behar da asteburuetan. Euskaraz jakitea beharrezkoa. ☎948 635465. Edo bidali curriculumak info@etxalarherriko.eus helbidera.

Sukaldeko altzariak salduko dituen **komertziala** behar dugu. Beha-

rezkoa da frantsesez jakitea. Orduetaz lastuko gara. Bidali curriculumak: amets@muelblesamets.com.

ELIZONDO. Juli ostatua pertsona bat behar da mahaiak zerbitzatu eta barran aritzeko. Sukaldean dakiena. ☎647 650248 / 628 054435.

DONEZTEBE. Eroski City-n esperientzia pixka bat baduen pertsona bat behar da arraindegian lan egiteko. ☎948 456152

BAZTAN. Jate-txe batean ostalaritzan esperientzia duen langilea behar dute udan lan egiteko. ☎619 955709 / 600 731781.

LESAKA. Kafetegi batean egun erdiz lana egiteko zerbitzaria behar da. Bidali curriculumak m.evag@terra.com helbidera edo deitu ☎619 188360.

LANA

eskariak

Adinekoak zaintzen, haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko **neska** lan bila. Ezagutza eta ikasketak animalien ingurukoa. ☎604 152370.

ESKUALDEA. Interna moduan adinekoak zaintzeko, emakumezko lan bila. ☎630 274738.

Umeak zaintzeko prest dagoen neska bat naiz, Haur Hezkuntzako titulazioarekin eta bi urteko esperientziarekin. ☎675 336624.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 72 €

Zerri gizena
1,355 € kiloak.

Zerramak:
0,830 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,32

1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberiak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,70/6,30
8-10 kilokoak: 5,00/5,50

Batxilergoa egiten ari den neska bat naiz eta uda honetan **Beran haurrak zaintzeko prest** nago. ☎608 406318.

ZERBITZUAK
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ANIMALIAK
salgai

Ahari mutur gorriak salgai. ☎697 440590

ANIMALIAK
oparitzeko

OIZ. Zakurrak oparitzeko. ☎674 414645.



Katakumeak oparitzeko. ☎626 335398.



DENETARIK
salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎653 011145.

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

DONEZTEBE. Haritz egurra salgai, 39 euro tonna. Prezioa Donezteben jarria da. ☎686 314036 (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).



Mahaia salgai bere sei **aulkiekin.** Hagitz egoera eta prezio onean. ☎685 764400.



DENETARIK
galdu-aurkituak

DONEZTEBE. Maiatzaren 19an Desigual markako kazadora beltz bat galdu zen Doneztebeko udaletxe atarian. ☎669 411664.

BERAKO TAILERRAK
MICROCAR M.GO. Karnetik gabekoa. Ekipamendu ezberdinak aukeran
BERRIA
RENAULT SCENIC. Egoera oso onean
DIESEL
N-121-A errepidea 63 km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

ETXALAR. Carmen eleberraren bertsio zahar bat galdu da plazatik usategietara doan bidean dagoen aparkaleku ttikian. Azal gorria du, idatzirik eta marrazkirik gabekoa. Zaharra bada ere, balore sentimental handia du. Honen berririk baldin baduzue, jar zaitezte kontaktuan, faborez. ☎661 155056.

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

744 484 361
ttipi-ttapa

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen

probextu aukera!

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
2019/04
372

ttipi-ttapa



Erabili
Ttipi txartela
pegatina
hau ikusten
duzun
denda eta
zerbitzuetan

PLAZAN BAZAN

Kaixo Lagunak!
zer moduz zaudete?




Atera oraintxe sator-zulotik eta zatoz barazkiak jatera!! Demontre!!



OTORDUA

Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

JOPE!
BETI
BARAZ-
KIAKI!




Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



JOLASTU INTERNETEN!! AUKERA ZABALA!

plazanbazan.eus


KIOSKOA | JOLAS-PARKEA | AZOKA | UDALETXEA | IKUSKIZUNAK | IPUINAK | KOMIKIAK | MARRAZKIAK
SUDOKUA, MARGOTU, OSATU, PUZZLEAK, ALDEAK, ARROTZA, BAKOITZARI BEREA, BILATU, DOMINOA, EZETZ ASMA,
GOGOAN HARTU, HANDITIK TXIKIRA, IRUDI ENGAINARIAK, ITZALAK, LABIRINTO, LERROA EMAN...



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak


ZAZPIKOA

Aurkitu bi irudien artean dauden zazpi aldeak.



ESAERA

Txerri gosetiak...



- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amest bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun

PUBLIZITATEA

UDAKO JOSTALDIA ESKUARAZ

BAZTANEN 2017ko UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

3-12 URTE

ASTELEHENETIK ORTZIRALERA, 10:00 ETATIK 13:00 ETARA

TXANDAK

1- Uztailaren 17tik 28ra
ERRATZUn (kodea ER)

2- Uztailaren 31tik abuztuaren 11ra
ELIZONDOOn (Kodea EL)

(Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehentasuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

PREZIOA

Baztanen erroldatuak

- 70€ txandako | 35€ aste bakarra.
- 55€ familia ugaria bada edo txandaren haurride bat baino gehiago badira
- 35€ aste bakarra.

Baztanen erroldaturik ez daudenak

- 110€ txandako
- 55€ aste bakarra.

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 31tik ekainaren 7ra 012 telefonoaren bidez
Epea luzaezina. Plaza mugatuak.

ORDAINKETA

Dirua kontu honetan sartu:
ES58 21003699 1622 00032886 (Caixa-Bank)
Epea: ekainaren 9a.

Kontzeptuan: haurren izen-abizenak eta txandaren kodea (ER/EL)

AURKEZTU BEHARREKOA

Familia ugariaren txartela, behar izanez gero, Baztan Balleko Etxean.

Antolatzailea:



Baztango Udala
Euskara Zerbitzua

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



MADDI BARAIBAR LOIARTE gure etxeko saltzerari zorionak 4 urte beteko dituelako ekainaren 3an. Muxu haundi bat zure familia osoaren partetik.



ADUR OLANO LOIARTERI: zorionak pottoko 4 urte beteko dituzulako ekainaren 9an. Ongi pasa eguna eta muxu asko Goizueta eta Leitzako familiaren partetik.



UNAI ALTZUGARAI ARANBILETEK ekainaren 4an 13 urte beteko ditu. Zorionak Almandozko atautxi, amatxi eta osabaren partetik.



Berako BEÑAT GOÑI ERRANDONEAK 4 urte beteko ditu ekainaren 3an. Zorionak familia eta batez ere Manex, Alazne eta Aierren partetik.



Narbarteko JUNE MARTIN ARGAINEK maiatzaren 26an 3 urte bete ditu. Zorionak eta 3 muxu etxeko printzesari familia eta berexiki Iraiaren partetik.



Ornoz-Mugaireko MAIALEN eta AITOR BARAIBAR GORTARIK urteak beteko dituzte maiatzaren 27an eta ekainaren 8an. Muxu haundi bana gure etxeko printze eta printzesari etxeko partetik, bereziki atxa eta amaren partetik. Ongi pasa zuen eguna eta aunitz urtez!!



Erratzuko NAROA BIKONDO JAURENARI maiatzaren 29an 12 urte bete dituelako. Zorionak familiaren eta lehengusu-lehengusinen partetik, Iker, Haritz, Odei eta Iraideren partetik eta berexiki bere anaia Enaitzen partetik. Muxuak!



ALIZIA OLAIZOLA urdazubiarrak ekainaren 2an urteak beteko ditu. Aunitz urtez! Ospatuko dugu eta segi horrela, majal!

 **hemen agertu nahi duzu?**

egin zure erosketa **erran.eus** en

argazki soila

5
EURO

argazki bikoitza

10
EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



TELEFONO GIDA 2017

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortzirriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri



- 5.700 ale
- Praktikoa eta erraza

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean



TELEFONO GIDA

Baztan | Bertizarana | Bortzirriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri

Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonen ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitez

T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

686 aleko irabazleak >



ZOZKETAK



BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Kamiseta bat



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera helduentzat

LIBURUAK



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

- Amalur
- Badator Korrika!
- Txo, Mikmak txikia

elkar
www.elkar.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com



BIOTERRA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

2 · 3 · 4

Ekaina
FICOBA
IRUN

P
dohainik

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa
Osasun eta ongizate jasangarria
Yoga day
Bioterraza

Biobeauty Gunea
Show cooking
Haurrentzako aktibitateak
Zozketak...

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu



BIO
TERRA
2017

14. EDIZIOA

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

2 · 3 · 4

Ekaina
FICOBA
IRUN

EKO ESPERIENTZIA
BIZI EZAZU!

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasun eta ongizate jasangarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeauty Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...

bioterra.ficoba.org

P
dohainik

Ficobara,
zatoz
trenean!

(Irun-Ficoba geltokia)


euskotren

ANTOLATZAILEA


FICOBA
IRUN, GIPUZKOA
www.ficoba.org